



MARZELINO MANTEROLA

# LORE APAL BAT

# LORE APAL BAT

AUSPOA LIBURUTEGIA

(166)

---

**Auspoa Liburutegia  
(EDITORIAL AUSPOA)**

**Plaza Santa María, 2 – Tolosa, Gipuzkoa  
Tel. (943) 67 12 82**

MARTZELINO MANTEROLA

**LORE APAL  
BAT**

**AUSPOA LIBURUTEGIA  
1983**

© Auspoa Liburutegia (Tolosa – Guipúzcoa)  
Fotokonposatzalle: Lente – Estella  
Inprimatzaile: Gráficas Lizarra, S. L., Estella (Navarra)  
Depósito Legal: NA.: 673-1983  
ISBN 84-7158-109-4

## ARKIBIDEA

Itzaurrea .....	9
Eskeintza .....	13
Nere bizitzaren gertakizun batzuk .....	15
Kamioetako ibillerak .....	41
Neska gazteak asarre .....	45
Negu zoragarria .....	48
Amagiarrebari bixita .....	51
Uztapideri .....	54
Gidari on bat .....	57
Gabon-jaietan .....	59
Jaioterriari .....	62
Emakumea alkate .....	67
Berrio Gabon-jaiak .....	69
Apustu gogor bat .....	72
Urtero moda berriak .....	75
Azken agurra .....	78
Berrio Gabon-jaietan .....	81
Erantzuna .....	85
Retegitarrak txapeldun .....	89
Pelota, euskal jokoa .....	92

Nafarroa'ko euskal kirolariak . . . . .	97
Zoritzarreko ezbeurrak . . . . .	103
Bilintx zanaren oroimenez . . . . .	105
Xalbadorren ondoeza . . . . .	110
Berriro ere Gabon-jaiak . . . . .	114
Gabon-Eguberriak . . . . .	118
Mitxelena'ri omenaldia . . . . .	121
Nere illoba baten ezkontza . . . . .	125
Andik urte betera . . . . .	127
Oporraldia . . . . .	129
Arrijasotzalleak Tolosa'n . . . . .	133
Ernio mendiko albisteak . . . . .	137
Artaldea gutxitzen . . . . .	139
Erriko pestak . . . . .	141
Arreba gazteenaren urtebetetzea . . . . .	148
Nere begien gozamina . . . . .	151
Nere urtebetetzea . . . . .	154
Uztapide il da! . . . . .	164

## ITZAURREA

Martzelino Manterola bertso-jartzalle txukunak liburu bat egin du gertakizunak eta bertsoakin. Egoki egin ere.

Martzelino ez da gizon ausarta, gauez erreka ondoan kantatzen duen txori oietakoa baizik. Kantu-aldixka bat egin eta ixildu. Olaxe, aldixka-aldixka osatu du liburu au.

Sasoirik onenean ere orain bezelaxe zan: ixilla eta apala. Gauzak aldatu dirala; gure bertso-jartzallea ez. Beti bezela jarraitzen du.

Jaizkibel-egal edo Gaintxurizketa'ko ganean jaio zan, Goikoetxe baserrian.

Ogei ta zortzi bat urte badira ezagutu giñala eta lagun egin.

Garai artan Irun'go Tellerian lana egiten zuan. Telleri bertako semea dan Migel Oiartzun, fabrikako enkargatua zan.

Gaur fabrika itxita dago eta Migel erretiratu. Bertsozale osoa. Gustokoak gintzaizkion



Martzelino eta ni. Nik bertsoa kantatu eta Migelek esaten zion:

– Zuk ere bota, Martzelino!

Alako batean asiko zan eta bai egoki kantatu ere. Orduan Migelen poza, esanaz bere irundar izketa egiñaz:

– Emen e badira bertsulariyak!

Etzebillen gaizki. Arrazoi zuan Migelek.

Manterola'k garai artan sentitzen zuan lotsaren erdia uxatzen jakin izan balu, plaza askotan pozik entzundako bertsolaria izango zan gaur.

Penagarri da lotsakizunak  
zinduala errenditu,  
ori ala da, bañan etziñan  
linbo beltzean gelditu;  
bakar batzuak baizik ez dute  
zure bertsorik aditu,  
mingain azpian gorde ziranak  
eskutik atera ditu.

Garai artan oraindik Gaintxurizketa'n bizi zan, Goikoetxia baserrian, eta auzo artan bazan taberna ttiki bat.

Joxepa Garmendia zan etxeko andrea; Txomin Garmendia Berrobi'ko bertsolariaren izeba.

An izaten genituan billera atsegiñak. Martzelino an bertako semea bezela zan.

Aldizka, aperi batzuak ere egiten genituan:

xoxo, konejo, karakol, eta katu-jateak ere bai. Apalondo batean onela esan zuan Martzelinok:

– Guretakoren bat norbaitek artzen badu beintzat, mantendu erraza izango dik.

Artean iru bat urte izango ziran da auzo artatikan bazijoala Gaintxurizketa beera. Iturrine'n jarri zan andrea artuta bizitzen.

Nik antz eman nion bertsolaria zala, bañan ez nekian bertsoak idazten zituanik.

Urte batzuak ere joan zaizkigu, aurren aldi artan bezin sarritan elkar ikusi gabe; eta, bitarte ortan, liburu bat betetzeko lain bertso egin ditu. Buru argiko langille eta euskaldun zintzo baten lana.

Liburu bat egiteak itzal aundia du. Ura an betirako gelditzen da. Arek esango du Martzelino zer zan.

Nik ez ditut bertso danak irakurri; bañan ziur nago liburu atsegiña izango dala.

Aurrerago ez noa, utsegiteak ere muga baterañoakoak barkatzen dira-ta.

Lendabiziko aldia det itzaurre bat egin dedala, eta barkatu, Martzelino, zure liburuan sartzen naizelako.

Koxme Lizaso.

## ESKEINTZA

Nere sendi ta anai-arrebak  
itxaropenez beteak  
on asko egin ote lezaken  
nik dedan borondateak.  
Euskal baratzak estali ditu  
elorri eta oteak,  
liburu txiki onentzat ere  
ireki dira ateak,  
lore apal bat geiago badu  
gure euskera maiteak.

*Martzelino Manterola'k.*

## NERE BIZITZAREN GERTAKIZUN BATZUK

### JAIOTETXEA

Ondarrabia'ri dagokion baserri txiki batean munduratu ninduten. Ondarrabi'ko azken baserria, ain zuzen. Aginaga-Sasiberri izeneko, naiz-eta denak Goikoetxia bezela ezagutu.

Ondarrabi'ko azken baserria esan det; ogei bat metrora baitago Lezo'ko mugarria.

Zortzi seme-alaba izan zituzten gure gurasoak; beraz, naiko pamili aundia, garai aietan baserri eta etxe geienetan izan oi ziran bezela.

Zortzi senide aietatik gaur sei bizi gera. Bi anai joan zitzaizkigun, edo eramán zituzten, mundu ontatik. Gaur lau arreba eta bi anai gera bizi geranak.

## ORDUKO BIZIMODUA

Kotxean aurrak artu ta orain ainbeste pa-siatu gabe azitzen ziran orduko umeak, za-rranak ondorengoai lagunduaz eta al zan modura.

Sei edo zazpi urtetan azita, komunio aun-dia egin arte eskolan; eta ori egitea posible zuenak, gaitz erdi.

Bein komunio aundia egindakoan, al zue-nak al zuen tokira morroi edo neskame, jate-ko eta jazteko ainbat ateratzera.

Nik ere nere bizitza guztia lanean darama-tela aitortu bear.

Mutil koskorretan baserrian gurasoai la-guntzen; eta ondoren, amasei urte baño len, asi nintzan telleri edo ladrillo-fabrika batean.

Ogei ta lau urte bertan pasa ondoren, lur jota gelditu zan. Itxi egin zan. Telleri au, Irun'go Katea ballaran zegoen.

Ni lanean asi nintzan eguna ez naiz ondo gogoratzen. Len esan bezela, amasei bat urte izango nituen.

Egiten nuen lana onelaxekoa izan zan zortzi bat urtean: lurra kargatu eta eramaten, lurra edo buztia.

Ni lanean asi nintzanean, pala eta pikotxa-kin kargatzen zan bagoia. Gero asi ziran *excavadora* eta kutzareakin kargatzen.

Bagoiak mandoakin eramaten zituzten garrai artan, eta trenbideak ere bazituzten jarririk.

Ni orduan goian, makinatik ateratzen zan ladrilloa bear zan lekuan jartzen aritzen nintzan, pioi bezela noski.

Gero, bagoiak kendu eta kamioitan egiten genduen garraioa. Ni orduan txofer bezela ibiltzen nintzan.

Lana, goizeko zortziretatik amabietara; eta gero, arratsaldean, ordubata t'erdietatik seiak laurden gutxi arte. Bazkaltzera etxera joaten nintzan.

Nere lendabiziko jorjala, amasei duro eta bi pezeta izan zan. Au da: larogei ta bi pezeta, aste guztian lana eginda.

Enkargatua, Migel Oiartzun, anai zarrena genduen, Telleri'koa bera.

Nagusiak sozio asko ziran, esaten zuten: Donosti'ko sei edo zortzi; eta gero, Telleri bertakoak, Oiartzun'tar oiek.

Lan neketsua eta zikiña izaten zan tellerikoa. Labean aritzen ziranak, beintzat, autsa galanki eta gañera beroa.

Ala ere, etziran indarrak zearo aituta gelditzen. Egun batean apustu bat egin zuten Igurmendieta'ko Dionisiok eta bere lagun batzuek.

Dionisiok, eun kilo ondar zaku batean eramane baietz Telleritik Irun'go Erriko-Etxe

aurrera bizkarrean eta iñun deskantsurik artu gabe, jakiña. Eta bere lagunak ezetz.

Illunabar batean, lanetik atera ta artu du zaku ondar ori bizkarrean, eta *tapa-tapa* Irun'go Erriko-Etxe aurrera; an bota lurrera eta meriendatzera lasai ederrean.

Beste batean, pelota-partidu bat jokatu zuten, oso polita.

Bat, Romandegi'ko edo Normandia'ko Ramon. Etxe au Oiartzun'dik Irun'go Landetxe'ra zijoan bide-bazterrean zegoen eta autopista egiteko bota zuten.

Ramon orri *Sorgiña* deitzen genion. Noizbait ere, maindirea burutik beera artuta neska gazteak izutzen ibillia omen zan, eta artatik *Sorgiña* izena jarria.

Alde batetik Ramon *Sorgiña* eta bestetik Aizabe'ko Sebastian.

Aizabe deitzen genion. Mutil aundia zan. Sasoi ederra zeukan orduan.

*Sorgiña*, berriz, urteetan ondo jantzia, txikia zan eta gaiñera errena edo kojua. Ezkerra zuen bere armarik onena, eta malizi asko berekin.

Beraz, jakinduria indarraren aurka, eta jakinduria gallendu. Txikiak irabazi.

Era oietako joko edo apostu batzuek egiten ziran iñoiz, merienda edo apariren batzuek jokatuaz.

Gero, *Industrial Salva* lantokian sartu nintzan, eta geroztik an jarraitzen det.

## GAZTE DENBORAKO JOKERAK

Baserritarra izan arren, bein fabrikan asi nintzanetik aurrera, ez nuen etxeko lanetan traba geiegirik ematen.

Or, Gaintxurizketa'ko gaiñetik Irun alderaxeago, kamio ertzean, bazan taberna bat. Ilbixtieta-berri zuen izena, bañan geienak Gaintxurizketa'ko taberna edo Joxepania deitzen genion.

Badira urte batzuk, kamioa zabaltzeko-edo, bota zutela etxe ura.

Orain ogei ta bost urte bota balute, ez dakit ez ote ninduen azpian arrapatuko. Egun gutxi izaten ziran ni an sartu gabekoak, lanetik edo beste nonbaitik nentorreanean.

Gure etxetik tabernarik aldeena ere uraxegenduen, eta bera izaten zan geienetan azkeneko estazioa.

Etzan jende asko ibiltzen zan lekua. Uda-partean bai. Kamio-ixkiñean zegoen, eta pasarako jendea eta abar, franko ibiltzen zan.

Baña gaiñekoan gu, egunero talde berdiña, izaten giñan. Trukean edo musean partidu batzuk egiñaz, ardo piska bat edan porroitik



txandan; eta orrela, gertakizun batzuk kontatuz, gustora egoten giñan.

Geienak urtez edo edadean aurreratutakoak izaten ziran, batzuk beren lantokitikan etxerakoan, ta bai inguruko baserritar batzuk ere noiz edo noiz illunabarrean, atsedenditxo bat artzera, beren kontuak eta gertakizunak alkarri kontatuaz.

Peri-eguna zanean, berriz, zer esanik ez. An bapo meriendatu eta etxerakoan ortxe sartzen ziran, bero-bero egiñak. Periak orduan Irun'en astelenetan eta Ernani'n ostegunetan izaten ziran.

Ni orduan gaztea izan arren, poza ematen zidaten, aien alaitasuna ikusita.

Bereala, bertso kantari-eta asten ziran. Neri ere noiz edo noiz asi arazten zidaten. Bazekiten gustatzen zitzaidala, ta orrela aiek gustora nerekin eta ni ere bai aien artean.

Beti egon izan naiz gustora, urtez ondo jantzia dagoan jendearekin. Une goxo asko ditut beren ondoan paseak. Aien gazte denborako gertakizunak, orduko pasadizoak, garai artuko kontrabandisten ibillerak eta abar eta abar, ainbeste kontu eder ditut entzunak.

Atsegin izaten zitzaidan aien kontuak entzuten egotea. Baña ezin esango det unerik goxoenak edadean aurreratutako jendearekin pasa ditudala, bestela nere emaztea aserretuko zait eta.

Dana dala, iñoiz gau osoak, edo-ta geie-

nak, an joaten zitzaizkigun, len esan dedan taberna txiki artan.

Ango etxekoandrea Joxepa Garmendia zan, Joxe Mari Ezkarmendi'ren alarguna. Patxara aundikoa eta pazientzi asko zuan emakumea. Bearko gañera pazientzia zenbaitan, guri ainbat orduan an aguantatzeko.

Oso sukaldari ona gañera. Otordu goxo asko egin izan ditugu guk an. Besteak beste, katua maniatzen oso esku berezia zuan. Urtero txerria ere iltzen zuten, garai artan base-  
rri geienetan bezela; eta orduan odolki jatea ere oso gogozkoa izaten genduan.

Era ortantxe pasatzen genituan guk orduak eta orduak Gaintxurizketa'ko taberna txiki artan. Lenago esan dedan bezela, bota zuten. Galdu zan etxe ura. Baña Joxepa ez. Joxepa oraindik bizi da zorionez, ta nere partetik uste askoan bizi dedilla gañera.

## FESTA, ERROMERI ETA BILLERAK

Atzoko kontuak dirala iduritzen zait.

Orduan etzan orain ainbeste dantza-leku itxi oietakorik, edo ez dakit baldin baziran ere. Ni ez nintzan aietara joaten beintzat.

Nere jaioterri Ondarrabi'n festak ziranean, Guadalupe'ra bidean bi edo iru soñu-jole beren taldearekin. Ura mendi gaiñeko alaitasuna!

Bertara irixtean, bost edo sei lekutan soñua jotzen. Barrakoi edo edari saltzeko leku bakoitzean bat gutxienez.

Irun'go festetan, San Martzial gaiñean, berdin. Au Ekainaren 30'an izaten zan.

Baita Errenderi'ko San Markos'en ere. Apirillaren 25'ean egiten zan era ortako erromeri polita mendi gaiñean.

Atsegiña izaten zan orduko festa-giroa.

Baserri askotan bakarren bat izaten zan soñua jotzen zekiena, eta zenbaitan bi edo iru igual. Beiak goseak egongo baziran ere, alaitasuna beintzat etxean.

Billerak, berriz, erri bakoitzean bi edo iru lekutan, erri batzutan beintzat.

Irun'en nere gazte denboran egiten ziran billerak esango ditut: Estebenea'n bat; Ibarla'n bestea; Xorruanea'n bestea; Bar Joxe Mari edo Joxe-Marinean beste bat; Irun'go *Ventas*'en ere bai.

Guk Katia deitzen genion ballara orri, eta orain Landetxe deitzen diote.

Oiartzun'en, berriz, Txikierdi'n, Altzibar'en eta baita or Pikoketa'ko bidean, Ameztieta edo Galdosenea'n.

Gero, aiek urrutiago, baiña Txomiñenea'n, Irubide'n, Ollalume'n eta abar.

Orain ainbeste tresna ta orain ainbeste karraxi gabe jotzen zuten soñua orduan. Ala ere, ederki entzuten genduen, eta dantzatu ere bai.

Ez dakit orduko gure oiturak eta jokerak politagoak ziran edo oraingoak obeak diran. Nik aiek maiteago nituen. Baiña beste aldera pentsatzen duenari ere, ez diot ezer gaizkirik esaten, baizik errespetatu egiten det.

## ZENBAIT OITURA

Nere gazte denboran, beste oitura bat oso polita, Gabon eta Urte Zar gauean kantari ibiltzekoa zan. Batez ere, Urte Zar gauean.

Or, Lezo eta Ondarrabi aldean beintzat, talde asko ibiltzen ziran baserriz baserri, beren soñu-jotzalle ta guzti. Ni neroni ere prankotan ibillia naiz.

Lenengo, oso gazteak giñala, nere lengusu Martzelino eta biok. Nik dozenen bat urte izango nituen, eta arek amar bat.

Ez genduen diru askorik bilduko; baiña lotan zeudenak esnatu arazi bai.

Geroago ere, urte batzuetan ibilli giñan. Aietan lagun geiago ta gaiñera soñuarekin. Bagenduen gure lagun bat soñu-jotzallea, or Irun'go Landetxe ballarako Utxune'ko Patxi-ku. Gero gaiñekoak: Olotza'ko Joxe Migel, Usategieta-zarreko Ixidro, eta gu bi lengusuak.

Etxe batzuetan nik kantatzen nituen bertsoak; bestetan nere lengusu Martzelinok. Bertso zarra erruz zekien arek, eta berriak

ere ederki botatzen zituen. Oso ondo moldatzen zan bertsoan. Beti kantari ibiltzen zan, amorrázita ez bazegoen beintzat.

Beraz, batek bertsoak kantatu, bestek *Dios te salve* erantzun eta Patxikuk soñua jo.

Ez genituen etxe asko pasatzen. Bi edo iru neskatxa bizi ziran etxeak izaten zuten estimazioa. Aien etxeak ez; baiña neskatxa aiek bai.

Gauza polita eta atsegiña izaten zan, gauean kanpora atera edo leiotik begira jarri eta etxe bat edo bestetan kantari, beste batzuk bidean soñua joaz, irrintzi ta alaitasuna bazter guztietan.

Goiza irixten zanean, seiretako meza entzun or Irun'go Pasionistetan eta etxera. Pitar trago bat egin eztarria leguntzeko, eta oiera.

Beste gau batean ere gertatu zitzaigun oso gertakizun polita, or Irun'go Elizatxo edo guk Elitxo deitzen genion ballara ortan.

Karmen'go Ama zuten Zaindaria, eta pestak egiten zituzten bi edo iru egunetan.

Urte batean, an festetan ibillita, etxera gentozen len aipatutako Patxiku, Joxe Migel, gu bi lengusuak, eta beste bat bagenduen nerekin batean lana egiten zuena, Xerapiñ.

Oñez gentozen, eta gañera gaua geiena pasea izango zan.

Or, Landetxe'ra iritxi baiño lentxeago, kamio-ixkiñako etxe batean, kamisoi bat ikusi genduen, balkoitik zintzilik, legortzen zegoela.

Arek etzigun guri trabarik egiten; baña gazteak izaki eta ezin utzi ondo zegoen gauzari.

Lurretik ez giñan allegatzen, ta or gogoratu zaie, txikiena ni nintzan-da, ni gora jasotzea. Bai altxa ere aixa, ura zegoen lekuraño.

Nik artu nuen ba kamisoi ori; eta, jetxi nindutenean, bai jantzi ere azkar.

Garaia ere izango zan eta bapo nengoen ni oiera sartzeko. Kamisoia oso polita zan gainera, kolore arroxakin-eta. Dotore nentorren ni etxe aldera.

Baña kukuak oker jo zigun. Zer gertatu zan?

Jabeak nonbait somatu zigun zer egin genduen, eta disimulo ederrean gu baiño atzera-xeagotik Landetxe'ra etorri.

Orduan Landetxe'n guardizibillen kontrola zan. Txabola txiki batean an egoten ziran beti.

Emakume orrek zer egin du? Gertatu ziztaiona guardiaiei esan, eta arrazoi aundiakin gañera.

Gu oraindik kontrol ortatik oso aldean giñan, eta gañera gure artean bat gutxiago, len giñanetik, Patxikuk Oiartzun'go bidea edo

kamioa artua zuen-da. Gu, beste laurok, aurrrera.

Alako batean, atzetik ejuka. Begiratu genduen atzera, eta bi guardizibil.

Bota nuen kamisoia kamio-bazterrera ta berengana joan giñan.

Segituan, aiekin batean kontrolera. Emakume ura ere an zegoen.

Asi zitzaizkigun kontuak galdezka, eta be-reala aitortu genien zer egin genduen.

Ea nun genduen ba... Ta eraman genien gure prenda.

Emakumea, bera gu baño geiago lotsatu zan. Izan ere, gure lagun bat ezagutzen zuen, Joxe Migel beintzat.

Segituan esan zion goardizibillari, bere arropa ura emateko eta konforme zala. Etzuela nai guri ezer egiterik.

Ura joan zan bere kamisoiarekin etxera; baña gu an, beste ordu pare batean. Galdera pranko bagenduen egiña.

Aiek etzutela presikan, eta gu ere an egon bearko genduela, eguna argitu arte.

Noizbait aspertu ziran ba, edo gu asper-tuak geunden beintzat, eta esan ziguten joan gindezkela etxera, eta ondoko eguardian Irun'go koartelera joateko.

Goizeko laurak aldera izango zan ordurako. Beste biak aldexeago bizi ziran; baiña guk, bi lengusuak, biaje ederra geneu-

kan oraindik andik etxera. Ollarrak kukurru-ku joko zuen, gu allegatu ordurako.

Etxera joan, ordu pare bat oiean pasa, kamisoirik gabe jakiña, ta lanera berriro.

Eguardian an joan giñan zintzo, agindu bezela. Parra egiten zuten, gu ikusita. Batek ala zion:

*-Ya está aquí la cuadrilla del camisón.*

Etziguten ezer askorik esan; munta pagatu bearko genduela ta orrelako gauz batzuek. Bañan ezagun zan broman ari zirala.

Segituan libre giñan. Ondo portatu ziran. Guk merezi baño obeto noski.

Gaztetan ez da konturatzen bat, oi zurian lasai lo egiteak zenbat balio duen.

Tabernan, lagun artean edo pestetan, nik ere gau asko galdu izan ditut. Bi edo iru ordu oian pasata, askotan joan izan naiz lanera.

Ala ere, ez naiz akordatzen sekulan ordu bete bat galdurik, parranda edo juergagatik.

Ori bai: arkaitzean kateakin trabatuta dagoen auntsak baño geiago supritu ondoko egunean.

Baña ala ere, illunabarra irixtean, oiera joateko gogo gutxi.

Lagun aundia izan nuen Usategieta-zarreko Ixidro, ezkondu ezkeroztik Errenderia'n bizi da, ta azken urte auetan oso baldartua eta ondatua dabil. Ezurretako gaitza edo



desgastea sortu eta zearo izurratuta utzi. Be-reak eta bi supritu ta ezin osatu gizonik. Gora biotza, Ixidro, eta ez etsipenik artu!

Utxune'ko Patxiku soñu-jolearekin ere ordu atsegin asko pasa izan ditut. Gure jaiotetxean prankotan izana da soñu jotzen senide arteko otorduetan da komeri. Bazkari edo apariren bat lagun artean genduenean ere, an izaten zuen bere tresna, jan ondorea alaitzeko. Sekulan etzuen izaten etxerako presik. Lagun artea asko gustatzen zitzaion. Gaur Oiartzun'go Gurutze alde ortan bizi da base-ri batean. Ez dakit etxearen izenik.

Olotza'ko Joxe Migel, ta bere anai Joxe Mari ere bai, lagun aundi eta jatorrak nituen. Lana ere alkarrekin egiten genduen telleri edo ladrillo-pabrikan; eta, lanetik libratzean, pelotan edo tokan edo bestela trukean. Taberna baitzegoen tellerian bertan.

Olaxe ibiltzen giñan eguna joan da eguna etorri.

Igande eta jai-egunetan, berriz, nere lengusu Martzelinorekin, geienetan beintzat. Ura etzan lanean gurekin ibiltzen; baña auzorik aldeenekoak giñan da biok lengusuak. Izen berdiñekoak eta bai abizen edo apellidoak ere. Arek Legorburu Manterola eta nik Manterola Legorburu.

Nola litekean ori? Aren aita eta nere ama anai-arrebak ziran, eta nere aita eta aren ama ere bai. Beraz, nai ta nai ez, lengusuak izan bear.

Neri Errezildar batek egun batean ala esan zidan, beste lagun batekin zegoen ta:

– Au ta ni *primos carneros* gaituk. Amak anaiak.

Olaxe izaten ziran orduko gure ibillera ta gertakizun batzuek.

Gero, urteak zijoazten bezela, asi giñan andregai edo adixkideak egiten, eta danok banatu giñan bakoitza bere aldera, eta konturazterako alde egin zigun gure gazte denborak.

Urtea, gabon-jaiak, pestak, negua, udara, oiek danak, bat pasatu arren, bestea etortzen zaigu. Bañan gazte denborik ez. Gazte denbora, bein joan ezkerro, ez da geiago etortzen.

## JAIZKIBEL ATZEKO ARROKAK

Esan bezela, nik ere Ondarrabi alde ortan egin nuen adixkide bat, eta ez oraingo gazteak bezin azkar, bañan pixkan-pixkan eza-gutu nuen bere familia.

Bere anaiak orduan arrantzara joaten ziran askotan Jaizkibel atzeko arrokatarra, eta gu ere jai batzuetan aiekin ara joaten asi giñan, eta egundoko apizioa sartu zitzaidan.

Andik aurrera, udara aldean, jaiero joaten giñan, egualdi ona bazegoen beintzat. Jaizkibel atzeko arrokak geren etxeak bezela eza-gutzen genituen, Ondarrabi aldekoak, beintzat. Noiz edo noiz andregaiaren ama ere joaten zan.

Goizean astoa kargatu jateko, edari eta gañeko tresnakin, Guadalupe'n zortzietako meza entzun astoak ez gañeko guztiak eta itxas-ertzera.

Andregaiaren anai bat, beintzat, arrokatako berri ondo zekiena zan: Joxe Mari.

Amuai jartzeko arrak eta karramarroak bertan arrapatzen genituen. Kanabalak pres-tatu ta ekiten genion arrantzari.

Izaten genituen egunak, arrai-mordoska arrapatzen genduenak. Aiek danen izenak bazekizkiten: karraxpilluak, dontzellak, durduak eta nik ez dakit zenbat klase. Pulpoak ere atera izan ditugu.

Marea beera zegoenean, lanpernak ere arrapatzen zituzten. Ontan amorratua zan Joxe Mari beintzat. Busti-aldi batek etzuen izutzen ura.

Lapa batzuek ere biltzen genituen, da orrela ama-alabak bazkaria jarri arte, bertan moldatzen zuten aiek bazkaria ta.

Orduan, tresna danak bildu eta bazkaldu patxara ederrean. Bazkalondoko akeita eta gañeko edari-paltik ez genduen izaten, eta antxe lasai bostak aldera arte.

Orduan, tapa-tapa etxe aldera. Egun bika-ña ta gustora pasatzen genduen.

Orko jendeak joera aundia du arrokatara. Edozein baserritarrek egiten du bere bueltaxka jai-goizean itxas-ertzera. Eta nik uste dut,

Ondarrabi'n bezela izango dala oitura ori beste itxas-erri geienetan.

Ni ez nintzan ordurarte asko ibilia itxasertzean. Bañan bein asi nintzanean, egundoko zaletasuna sartu zitzaidan; eta, esan dedana, gaur nere emaztea danaren jaiotetxekoak ere apizio aundia zuten, anaiak batez ere, Fermin eta Joxe Marik.

Orduko aien lagun batzuek ere askotan joan oi ziran gurekin, eta, esan bezela, bai ama ere noizik eta bein; eta gaur ere uste dut zinera baño lenago abiatuko litzakela arrokatarra, bere larogei eta zazpi urterekin.

Jaizkibel mendia ta batez ere Guadalupe, oso maiteak ditugu Ondarrabi'n jaio giñan guztiok.

An daukagu Ondarrabi'ri argi berezi bat egiten dion gure Ama, eta nik ere, Guadalupe'ra irixten naizen guztietan, egiten diot nere bixitatxo bat.

Orain kanpotar jendea ere asko ikusten da Guadalupe'n eta Jaizkibel mendi guztian. Badira udara-partean illabete osoa bertan pasatzen dutenak ere, beren tienda-kanpañak jarrita, eguzkia eta itxasoko aizea artuaz.

Guk mendi orri beti Jaizkibel deitzen diogu; bañan neri urtez aurreratutako askok esan didatenez, Jaizkibel ez, bañan Gaitzkibel omen da orren izena.

Zertatik datorren ori? Or urte askoan larretu edo mantentzen dan aziendak, gibela on-

datua edo izorratua omen du. Orregatik omen da.

## BERTSOEN ZALETASUNA

Bai; oso gazterik, mutil koskorra nintzala, sartu zitzaidan afizioa bertsoak entzuteko eta ikasteko. Orduan festa-egunetan bertso-paperak saltzen ibili oi zan beti nor edo nor.

Sarritan ikusten zana, bat beintzat, Mendaro Txirristaka izaten zan. Askotan erosten nion nik paperen bat edo beste, eta bai ikasi ere bertsoak azkar. Dotriña baño errezago ikasten nituen nik bertsoak.

Bertsolariak lenengo plazan kantatzen, Lezo'n ikusi nituen: bat Saiburu eta bestea zein zan ez daukat gogoan.

Orduan etzan gaurko tresnarik. Beren ezta-rriko indarrez baliatu bear jendeari aditu erazteko.

Nik nere gazte denboran ezagututako bertsolaririk zarrena Saiburu zan, eta gazteena Mitxelena. Etzan orain bezelako aukerarik izaten orduan. Urte batzutan beti jakiñak izaten ziran. Gero, andik urte batzuetara asi ziran bildots berriak sortzen eta bereala osatu zan artalde bikaña.

Garai artan ere baziran bertsolari geiago plazetan ibiltzeko modukoak, bañan izutu edo lotsatu egiten. Taberna eta sagardotegie-

tan bai bertso bikañak, bañan plazan kanta-  
tzeak kezka ematen.

Orain ez dago orrelako beldurrik. Eskole-  
tan laguntzen zaiotelako edo lotsak eta beldu-  
rrak alde egin dutelako, gaur badirudi gazte  
danak bertsolari biurtzen ari dirala.

Danok dakigu eskolatzea eta saiatzea ona  
dala; bañan ala ere ez dut uste oiek danak  
bertsolari onak atera litezkeanik. Gero  
bertsolari ona izango danak, berezkoa edo  
ortarako jaioa izan bear du. Euri-jasa edo  
euri-golpea botatzen duanean, iturri asko  
izaten dira ura ematen dutenak. Bañan legor-  
tea dagoenean, oso gutxi. Orduan, berezko  
iturri on oiek bakarrak ematen dute ura.

Azken urte auetan bertsolaritzari buruz  
oitura on eta polit batzuek galtzen ari ote  
geran iduritzen zait. Eta au ez da bertsolaria-  
ren errua, dana beintzat; jartzen diran gaiena  
eta entzuten gaudenena baizik.

Beste gauza geienak bezela, politika  
barruan sartu degu bertsolaritza.

Nun erabiltzen dira orain nekazaritza edo  
nekazari-gaiak, artzai edo artzantzako gaiak,  
baso edo baso-mutillen gaiak, arrantzale edo  
itxas-gizonenak, eta abar? Oiek ez al dira  
bertsoz goraltzea merezi luteken gauzak? Zer  
gertatzen da ordea? Ministro edo agintari  
bati bertsoa bota ezkerro, jendeak atzaparrak  
puskatu arte txalotuko dizu; eta nekazari edo  
artzai bati bota ezkerro, ez dago txalorik.  
Txistuak, deskuidatzen bazera.

Katearekin lotuta etxea zaitzen dagoen zakur bat jartzen badiote gai bertsoak kantatzeko, entzuleak ez du entzun nai etxea zaitzerik edo zakurrak daukan eginkizunik, animalari orren askatasuna baizik. Kaiolan dagon txoria baldin bada gaia, berdin; eta sardiña zarra baldin bada, badaki bertsolariak nora jo bear duan, txaloak entzun nai baditu.

Gai jartzen ari danak eta bertsolariak entzulearen gogoia bete nai du, eta ortarako badaki zer bide artu bearra daukan. Politikan sartzen diran gaiak eta gaur sortzen dituzten doñu berri oiek erabili ezkerok, ez da bertso txarrik askorentzat. Gaur orri geiago begiratzeko zaio, bertsoaren mamia eta aberastasunari baño.

Nik ondo ikusten det gauz batzuek aldatzea edo berriak sortzea; bañan lengo zarrak erabat galdu gabe.

Geiago itzegin liteke gai oni buruz, bañan ixiltzera noa. Bearbada oker egon niteke nere ueste edo nere iritzi oietan, eta beste aldera pentsatzen duentzat ez daukat itz bat gaizki esan bearrik, errespetatu baizik.

#### AMABOST URTE LEZO'N

Ezkonduta ondoren, amabost urtean Lezo'n bizitu giñan, or Gaintxurizketa aldean, Iturrin izeneko etxean.

Txoko polita eta patxara ederrekoa zan Iturrin'go txokoa. Zazpi famili bagiñan eta, beartzean alkarri lagunduaz, oso ondo konpontzen giñan.

Orduan Portuezane deitzen genion taberna batean izaten genduan gure bildu-lekua. Etxetik oso urrean genduen taberna ori, eta nik, beintzat, egun geienetan egiten nuan nere bueltaxka.

Udara aldean, igande eta jai-egunetan, apari-merienda artuta joaten giñan, eta ura jan ondorean gu gizonezkoak musean eta andreak umeai begiratuaz kontuak esan, ta era ortan izaten ziran gure lagun-arteak.

Geienetan an biltzen giñanak: gu Iturrin'dik, Nekaxio, Rafael, Antonio eta ni; Joxe Leon ta Joxe Ramon ere bai batzuetan; eta Lanbarrin'dik Manuel, beste bakarren bat edo beste ere bai noiz edo noiz.

Bersotan saio batzuek ere egiten genituen, barrena berotzen zanean. Nekaxiok apezio aundia zuen bertsoarako, eta oso ondo mol-datzen zan gañera. Ura ta biok aritzen giñan tarteka geren gertakizunak kantatzen. Era ortan broma ederrak paseak gera Portuezane alde ortan ere.

Zalako Iturrin artan bizi giñala asi zitzaidan gogoia, bertsoak jartzen asteko.

*La Voz de España* egunkarian da *Goiz-Argi'n*-da etortzen ziran bertsoak, Manuel Matxain'enak, Inozentzio Olea'renak, eta geiago ere baziran jartzen zituztenak.



Norbaitek esan zidan, bertsoak jarri ta Basarriri bialtzen zizkatela, ta gero arek argitaratzen zituala *Mi atalaya montañera* sallen.

Orduan neri ere asteko gogoia etorri zitzaidan; eta, orain data amabi urte, nere lenengoak moldatu nituan.

Alako batean, or eman ziguten andik bi edo iru urterako etxe aiek bota bearrak zirala abisua, eta bereala asi ziran ur-errekak tapatzen, kamioa egiten eta orrela.

Ta batera edo bestera jo bearra zegon da guk Arragua aldera jo gendun, ta baita Rafaelek ere bere familiarekin. Beraz, an bizi-lagunak giñan da emen ere bai, eta lagun aundiak gañera. Aundiak ez gorputzez, bañan lagun bezela bai. Joan daneko ogei urte auetan, badegu ordua pranko pasea alkarrekin.

## OIARTZUN'EN

Bizi-lekuaz aldatu arren, au da, Lezo'tik Oiartzun'a etorri arren, ez nion bertso jartzeari utzi. Emen ere, bolara batean, bertso-mordoxka moldatu nuan.

Oiartzun'go jendea bertsozalea da; bertsozalea eta gañera ona eta txarra bereizten dakian jendea.

Nere oroitzan, beti ezagutu ditut bertsolari

onak Oiartzun'en; eta gaur ere badaude, zorionez.

Ala ere, ni, egia esan, joan daneko lau edo bost urte auetan zabartzen joan naiz. Asko utzi diot lan oni; eta uzten errezago da, berriro asten baño.

Bañan joan dan urtean antolatu zuten lenengo bertso-astea Oiartzun'en, eta Adu-riz'eneko sagardotegian eman genion asiera, Usurbil'ko eta Oiartzun'go bertsolarien arteko desafio edo txapelketa batekin, ain zuzen.

Epai-mairako deitu zidaten neri orduan, eta arritu egin nintzan, nik artean ez bainuan ezaguera aundirik jai-antolatzaile oiekin. Bañan poza artu nuan nitaz akordatzeagatik eta baiezkoa emen nioten.

Aste aren barruan bertako semea eta bertsolaria dan Lexotiri ere omenaldi bat eskeñi zioten, eta bai bere liburu bat atera ere. Era ortako jai-aldi bikañak ospatuaz pasa genduan Oiartzun'go lenengo bertso-astea.

Ondore artan, orko jai-eratzalle diran Iñaki Arbelaitz, Joxe Kruz Ezeiza «Kaxka», Joxe Anjel Garbuno'koa eta beste lagun batzuek esan zidaten, urtero, bertso-asterako, Oiartzun'go bati liburu txiki bat ateratzeko asmoak zituztela eta aurten nerea atera bear zala.

Nik aurrenean broman artu nuan. Ez nioten sinistatu ere.

Bañan berriro ere baietz; etzirala bromañ ari; egia zala.

Orduan nik esan nioten, ortarako Oiar-tzun'en ni baño aurreragoko eta geiago mere-zi zutenak asko egongo zirala.

Bai, baña liburu bat betetzeko gai asko bear zala, nik bertso asko neuzkala jarriak, eta jakindu zutela kaset edo zinta bat edo beste baneuzkala bertso edo zerbaitekin be-teak; aiek berak pasako zituztela paperera, eta nik nere bizitzako gertakizun eta istori pixka bat idazteko, eta oiek danak bildu ta bereala osatuko genduala liburua.

Nik, aien naia eta laguntzeko borondatea ikusirik, al nuana egingo nuala agindu nio-ten, eta alaxe egin ere.

Aurtengo bertso-asteen atera nai genduan, bañan berandu asi giñan eta eziña izan degu. Ez gera iritxi. Orain erriko festa edo San Esteban jaietan izango da bere aurkezpena.

Liburuaren itzaurrea ere norbaitek egin bearko zuala eta Koxme Lizaso bertsolariari esan genion nai al zuan egin.

Eta arek baietz erantzun zigun. Sekulan etzuala era ortako lanik egin, bañan egingo zidala, eta gustora.

Bai egoki ta dotore egin ere. Nik eta nere liburuak merezi baño obeto noski.

Bejondeikela, Koxme! Alkarrekin pasatako une goxoak gogoan dauzkak oraindik. Burua argi daukanak egiten dizkik olako lanak.

Era ortantxe, berandu bada ere, bukatuta dago liburu ori. Txikia eta eskasa izango da, bañan borondaterik onenean egiña.

Orain badaukat lanik asko nere lagunak eskertzen. Une onetan egin nezakeana, nere lan au oso-osorik eskeñi, egiteko nigan gogoratu, nigan itxaropena jarri eta ainbat lagundu didaten guztiori. Eta liburu au irakurtzen duen bakoitzari, milla esker.

## KAMIOETAKO IBILLERAK

Uztailla zan da baztar guztiak kotxez be-  
teak ordurako ere. Nik zerbait gai artu bear  
eta kamioetako ibillerak gai artuta, amar  
bertso jarri nituan. Auek izan ziran, nik  
paperean moldatutako lenengo bertsoak.

- 1/ Eskari auxe egin didate  
nere lagun zar batzuak,  
izatez ere nola baitiran  
ain bertsozale sutsuak;  
argitasunik ematen badit  
gure Jaungoiko altsuak,  
kamiotako ibillerari  
jartzera nua bertsuak.

- 2/ Uztaillaren ogei ta bosta  
Santiagoren eguna,  
zer bero zakar, kixkalgarría,  
orduan egin zuena.  
Kamio-ertzeko arbolpe baten  
nengoen ziar etzana,  
iñola ezin sinistaturik  
ikusten ari nintzana.
- 3/ Ordu pare bat igaro nitun  
nik ziara arriturik:  
ainbat denboran gelditu gabe  
kamio dana beterik;  
an etzan palta kotxe, autobus,  
kamioi eta motorik,  
mendi-bidera jo bearko degu,  
or ez da geio lekurik.
- 4/ Geientsuenak bere saillean,  
alkar errespetatuaz,  
beren raitatik atera gabe,  
pazientzia artuaz;  
baiña batzuak ikusten ziran  
erdi otso biurtuaz,  
danei aurea artu naiean  
arrixkuetan sartuaz.

5/ Beste batzuak zori txarrean  
sarri ikusten ziranak:  
neska gazteak txofer gaiñera  
beren buruak etzanak.  
Al dan jatorren ibilita ere  
izanikan naiko lanak,  
zer argitasun eramango du  
postura ortan dijuanak?

6/ Nere ustetan bada garaia  
buruz pixka bat jazteko,  
ainbat arrixku dagon lekuan  
txorakeritan asteko;  
deskuido gutxi naikoa da or  
bazter guziak nasteko,  
oi baiño leku zabalagorik  
ez ote da jolasteko?

7/ Zentzu guztiak galduak daude,  
ez da posible bestela,  
ala erakutsi nai al diote  
asko maite dituztela?  
Pentsatu ezkerio eriotzako  
arrixkuan dijoaztela,  
nik uste beste minutu batzuk  
aguantatu ditezkeela.

8/ Batzuk presaka, bestek jostatzen  
dabiltzan leku guzitan,  
errespetu ta lotsa galduaz  
ain jokera itxusitan.  
Oiengatikan zenbatek parte  
artutzen du desgrazitan?  
Kulpik ez dunak pagatu bear  
amarretik beatzitan.

9/ Gero ta arrixku geio dagola  
egon gindezke etsiak,  
gazte jendeak artzen baditu  
norbere komenentziak.  
Aztu dirade legezko martxak,  
bukatu pazientziak,  
ori dala-ta zenbat famili  
dabiltza lutoz jantziak?

10/ Geren kurpillak erabilitzen  
egon gaitezen txit trebe,  
duda-moduan ibiltzekero  
etxean gelditzea obe.  
Anai-arrebok, izan gaitezen  
geren buruaren jabe,  
kamioetan oinbeste odol  
ixurtzen ikusi gabe.

*Zeruko Argia, 1971.IX.12*



## NESKA GAZTEAK ASARRE

Zorioneko *minifalda* edo gona motxaren moda atera zanean, bazan zer esana ugari baztarretan. Luzeak jantzi eta berdin. Praka edo galtzak jantzi eta orduan ta geiago. Iñola asmatu ezin.

Ori zala-ta, onoko bertso auek moldatu nituen, orain dala amabi urte:

- 1/ Mesedetxo bat eskatutzera  
zugana gera abitu,  
gaur eguneko jazkerarekin  
pixkat nai gendun luzitu.  
Ori dala-ta, aspalditxoan  
guk zer ditugun aditu,  
naio genduke bertso batzutan  
azalduko bazenitu.

- 2/ Udara aldean, moda zala-ta,  
jantzi gendun *minifalda*,  
orduntxe bazan zer itzegiña:  
«Baiñan au posible al da?  
Euskalerriko neskatxarentzat?  
jantzi oberik ez al da?»  
Esaten zuten: «Ortara ezkerro  
dana kenduta igual da».
- 3/ Ura kenduta *maxifalda* edo  
oiñetaraiñoako gonak,  
lendik izketa txarrak baziran  
orduan etziran onak.  
«Jazkera ori nola eramán  
burutik sano dagonak?»  
Batzuek mojak deitzen ziguten,  
besteak berriz amonak.
- 4/ Negu aldean gonak kenduta  
or jantzi ditugu galtzak,  
len zer esana baldin bazegon  
orain jarri dira saltsak.  
Gizasemeak ala zioten:  
«Olako andre bat ar zak!  
Len ezpagendun asko agintzen  
leku onean gabiltzak!»

5/ Ezin supritu emakumeak  
galtzak jantzita ikustea,  
eztagola ondo neska gazteak  
gona luzeak jaztea,  
ta lotsagarri gona motzekin  
iztarrak erakustea...  
Zer nai dezute: danak kenduta  
larru-gorriarik astea?

*La Voz de España*, 1972.II.6

*Zeruko Argia*, 1972.II.13

## NEGU ZORAGARRIA

(DOÑUA: «Iparragirre abilla dela...»)

Negua ona egiten duanean, asko aurrera-tzen du udaberriko etorkizuna. Askotan zer gertatzen da ordea? Neguak egindako ona udaberriak ondatuta utzi. Orrelakorik ez egi-teko erregutuaz datoz oraingoak.

1/ O, negu maite, agurtzen zaitut  
merezi dezun moduan,  
aspalditxotik zu goraltzeko  
asmoa artua nuan;  
ederra izan zera  
udaberri antzera,  
danok zaitugu goguan,  
onerako ere balio dezu  
asitzen zeran orduan.

2/ Berea aitortzen jakin dezagun  
txarrei bezela onari,  
konturatzea naikoa degu,  
gezurretan zertan ari?  
Berde daude zugaitzak,  
soro eta baratzak,  
lore mardula ugari...  
A zer segira laga diozun  
aurtengo udaberriari!

3/ Ikusgarria dago benetan  
utzi dezun ondorena,  
aspalditxoko urte auetan  
izan danik dotorena;  
sendo datoz belarrak,  
pozez baserritarrak,  
au da esaten dutena:  
«Zu izan zera nekazarien  
laguntzalleik jatorrena!»

4/ Kukua kantuz mendia alaitzen,  
beste txori danak berdin,  
eguna luze, eguzkik indar,  
bazter danetan atsegin.  
O, udaberri maite,  
ondo portatu zaite,  
ez zitalkeririk egin,  
bide onean datorren gauza  
alperrik galdu eztedin.

5/ Naiz-ta neguak alai agurtu  
ta iritxi udaberria,  
ekaitz zakar bat badago emen  
geron artean jarria;  
eztago pakerikan,  
ta ori ez izanikan  
akabo Euskalerria!  
Anai maiteok, auxe bai dala  
benetan negargarria!

6/ Inbiri eta gorrototikan  
eztago emen neurrik,  
alkarganako maitasun gutxi,  
zer gauza tristeagorik?  
Aspalditikan nago  
gero ta goibelago  
auxe pentsatzen jarririk:  
maitasunikan eztan lekuan  
eztala udaberririk.

*La Voz de España*, 1972.IV.6

*Zeruko Argia*, 1972.IV.16.

## AMAGIARREBARI BIXITA

Bai; tarteka bixita egiten diogu emaztearen ama eta bere sendiari, kontu kontari saio bat egiñaz. Bera urtetan aurreratua izanik, beldurra ematen diote gaurko oitura eta gaurko gazteen jokerak. Bixita baten ondoren, ari entzundako gauz batzuek gogoratuta, onoko ale auek moldatu nituen:

- 1/ Amagiarreba bixitatzera  
izan naiz lengo jaiean,  
iñoiz bezela ez nun aurkitu  
ain umore alaiean;  
etxeratuta luma arturik  
exeri nintzan maiean,  
esan zizkidan egi sakonak  
bertsotan jarri naiean.

- 2/ Edadez ondo jantzia dago  
baiña zentzuz oso gazte,  
orregatikan lengo oituraz  
oroitutzen da ainbeste.  
«Seme maitea –esaten zidan–,  
gauzak oker dijoazte,  
kezka bat daukat nere barruan  
ta onek jartzen nau triste.
- 3/ Nun dira lengo euskal billerak,  
itz goxo eta kantuak,  
jatordutako orazioak,  
errosario santuak,  
gure erretira zintzo, zuzenak  
ta gaiñontzeko kontuak?  
Deseginduta utzi dituzte  
Jaunaren mandamentuak.
- 4/ Len izoztegi ziran lekuak  
jarriak dira gaur labe,  
len gerorako utzitzen zana  
orain azkar eta trebe;  
len irripartsu ziran txokoak  
orain zorionik gabe,  
lizunkeria egin dalako  
errespetoaren jabe».



5/ Agurtutzeko besarkada bat  
eman genion alkarri,  
onela zion: «Ni emen nago,  
nai dezunean etorri.  
Eta zuk, seme, jarrai zaiozu  
bertsoak moldatze orri,  
oiek baitira gure izkuntza  
maitearentzat ongarri».

*La Voz de España*, 1972.VII.15

*Zeruko Argia*, 1972.VII.30

## UZTAPIDERI

Anoeta'ko pelota-lekuan, bertsolarien jaialdi bikain bat ospatzen ari zala etorri zitzaion ondoeza Uztapide bertsolari aundiari. Bertsolariak eta bertsoak maite ditugunak zearo goibelduta gelditu giñan, eta nik ondoren artan onoko ale auek moldatu nituen:

- 1/ Euskal bertsoen zale geranok  
orain bai illun gaudela,  
jakin zazute Uztapidetzaz  
mintzatzen asi naizela.  
Bertso auetxek eskeintzen dizkat  
oroigarritzat bezela,  
baldin kalterik egingo banu  
arren barkatu dezala.

2/ Zer utsunea gure plazetan  
aurtengo uda guztian,  
gure Manuel gaitz gaizto batek  
artu baizuen azpian;  
naigabe ori nere aurrean  
gertatu zan Donostia'n,  
Apirillaren azken egunez  
irurogei ta amabian,

3/ Txit borondatez eskeiñi zigun  
biotz zabal da xamurra,  
txalo berotan ordaindu gendun  
orduko azken agurra.  
Geroztik duen ixillaldia  
ezta nai bezin laburra,  
berriz asiko ez ote zaigun  
badaukat naiko beldurra.

4/ Lanerako gai eztan gizonak  
eztauka irabazirik,  
galdera auxe egiten det nik  
gauzak ola ikusirik:  
Bertsoko jai bat zertan jarri ez  
maitasuna erakutsirik?  
Projimoaren laguntza orri  
eutsi zaiogun bizirik.

5/ Jesus maitea, une onetan  
zuri erreguka nago,  
eskari onen erantzun ona  
zure eskuetan dago:  
Doaia eta borondatea  
eman zenizkan lenago,  
orain indarra eman zaiozu  
kantatu dezan geiago.

*La Voz de España*, 1972.VIII.27

*Zeruko Argia*, 1972.IX.10

## GIDARI ON BAT

Jose Anjel Lujanbio'k estropadetan izen  
aundia iduki zuan bolara batean trainerako  
gidari edo patroï bezela. Ondarrabi'ko koa-  
drillarekin ere aurreko muturrean ibili zan  
urte batzuetan, eta nik onoko bertso auek es-  
keñi nizekion:

- 1/ Gidari on bat izatezkero  
zu bai zerala benetan,  
erakutsia daukazu garbi  
egin dituzun lanetan;  
mutillak beti trebe jarriak  
beren eginkizunetan,  
argatik zabiltz beti aurretik  
zoazen leku danetan.

- 2/ Zuretzat ezta baliza txarrik  
eta itxaso zakarrik,  
ain gutxi berriz olatu eta  
bueltak artutzen okerrik.  
Arraunak zuzen, mutillak zimel,  
ezer eztago alperrik,  
ezpaita aski indarra sobre  
edukitzea bakarrik.
- 3/ Jaioterria apaindu ondoren  
kopa eder da banderez,  
len baju zeuden auzo erriak  
jantzi dituzu onorez.  
Gaur Gipuzkoa beterik dago  
balio aundiko landarez,  
bear bezela oiek ezitzen  
asi zaitea, mesedez.
- 4/ Zu, Joxe Anjel, ortarakoxe  
sortu zifian egun batez,  
sasoi ederra daukazu oraindik  
eta aprobetxa zaitez.  
Karmen'go Amak zaitu zaitzala  
aparteko borondatez,  
nere zorion beroak artu  
bertso auetxen bitartez.

*La Voz de España*, 1972.X.21.

*Zeruko Argia*, 1972.X.29.

## GABON – JAIETAN

Garai bateko Gabon eta Urtezar-gauetan euskal sukalde-txokoetako oiturak eta orain-goak gogoratuta moldatuak dira ondoren datozen bertso auk:

- 1/ Bertso berrien zale zeraten euskaldun maitagarriak, bakar batzuek ortxe dijoaz zuengatikan jarriak. Pasa ditugu Santo Tomasak, Gabon da Eguberriak, sano ta ondo dagonantzako zein egun zoragarriak!

- 2/ Bertso zar eta ipui kontatzen  
zenbat aiton eta amon,  
oitura ori galtzen ari da,  
lenago geiago zegon.  
Gaur bildu dira sendi guztia  
naiz len banaturik egon,  
egun auetan ikusitzen da  
maitasun asko nun dagon.
- 3/ Emendik kanpo bizi diranak  
ez ditut aztutzekoak,  
pentsamentutan naiz emen egon  
eztira etortzekoak;  
beren matraillak malkoz bustiak,  
eta berdin etxekoak,  
beste urte bat iritxiko da,  
lagun zar biotzekoak!
- 4/ Ta beste zenbait urrikalgarri  
urtetan gaixorik daude,  
oietaz pixkat oroitutzea  
ez ote genduke obe?  
Gaitz maltzur asko daude egiñik  
errugabe oien jabe,  
argatik daude gau eta egun  
ordu atsegin bat gabe.



5/ Ain egoera samingarria  
pixkat poztu nai nuke nik,  
udaberria etorriko da  
negu illuna joanik.  
Anai-arreba errukarriak,  
ez aztu nere esanik:  
Salbatzallea jaio da eta  
ez galdu itxaropenik.

6/ Zorion eta agur guztioi  
Manterola'ren partetik,  
obeak jartzen saiatuko naiz  
orain datorren urtetik.  
Irakurle ta entzule danok,  
maite zaituztet gogotik,  
urte berri on zorionsu bat  
opa dizutet Lezo'tik.

*La Voz de España*, 1972.XII.30.

*Zeruko Argia*, 1973.I.7.

## JAIOTERRIARI

Orain dala amaika urte, Ama Madalen egunez egualdi zoragarria zegoen ta Jaizkibel mendiz Guadalupe'ra joan nintzan, ta andik Ondarrabi'ra jetxi, bidean eguzki eta aize garbia artuaz. Artean Lezo'n bizi bainintzan.

Mendi-gain artatik begira jarrita, bistan zeuden nere sorterri Ondarrabi polit eta atsegiña, bere ondartzaz, egazkin-zelai, baserri bikain eta Jaizkibel mendian dagoen gure Amaren babes-leku dan Guadalupe. Baita ni munduratu nintzan baserria ere.

Oiek danak begien bistan neuzkala, gauz asko bururatu zitzaizkidan.

An ikusi nuan lenengo argia; an artu nituan lenengo amaren bular eta laztan goxoak; an eman nituan lenengo pausoak; an egin nituan nere lenengo itzak. Ondarrabi'n bataiatu ninduten, Ondarrabi'n egin nuan komunio edo Jaun-artze nagusia, eta Ondarrabi edo Guadalupe'n ezkondu giñan.

Oiek danak pentsatu ondoren, ni bertso-jartzalle izanik, zor bat neukala Ondarrabi'ri bururatu zitzaidan, eta ondoren datozen bertso oiek eskeñi nizkion.

Gustora bizitu nintzan Lezo'n. Oso gustora bizi naiz gaur Oiartzun'en. Bañan ala ere ez dut iñoiz aztuko nere jaioterria.

1/ Ama Madalen eguna da gaur,  
egualdi onan itxura,  
Jaizkibel mendiz or izandu naiz  
Ondarrabi ingurura.  
Jakin zazute erri ortantxe  
sortu nintzala mundura,  
ta bide ortan bertso auetxek  
etorri zaizkit burura,  
sorterriari eskeñi dizkat  
al nezakean modura.

2/ O, jaioterri maitagarria,  
zuri begira naukazu,  
urte gutxitan gauza ederrak  
ugari egin dituzu.  
Mundu guztiko udazaleak  
ezaguna zaituzte zu,  
txarrena au da, leku guztiak  
zearo bete zaizkitzu,  
erri aundia etzera baiña  
gauz geienak badauzkatzu.

- 3/ Baserri eder, kale txukunak,  
kaia oien antzekoa,  
ondartza bikain, zoragarria  
danontzat aukerakoa,  
egazkin-zelai zabal, polita,  
ez ortik onerakoa,  
gure Jaizkibel mendi apaiña  
piztien gorde-lekua,  
bere oinetan irripar gozoz  
Ama Guadalupe'koa.
- 4/ Nekazariei begiratuta  
or zer etzaigu ageri?  
Landare eta barazki-saillak  
danak mardul eta guri;  
ontaz gaiñera begira ondo  
emengo ganaduari,  
illaje piñak, bizkarrak zabal  
eta esnea ugari,  
bestela etzan sartuko emen  
sartu dan ainbeste sari.
- 5/ Arrantzaleak aipatu gabe  
ezin ninteke gelditu,  
ta Ondarrabi'k ortatik ere  
gizon azkarrak baditu.  
Guk emen arrai goxoa janda  
aietzaz gutxi oroitu,  
Karmengo Ama, egiezu argi,  
ez illunpetan lajatu,  
ainbat supritzen duen gizonak  
guztiak merezi ditu.

6/ Lenago illun zeuden kaleak  
orain alai eta argi,  
len sasipean zeuden txokoak  
jarri dira lorategi;  
lenago bordak ziruditenak  
gaur benetako jauregi,  
len erdi utsik zeuden tokiak  
bete zaizkitzu geiegi,  
ikusten dezu jendeak zenbat  
maite zaitun, Ondarrabi.

7/ Gure Jaizkibel goraldtu gabe  
gaur ez ninteke gelditu,  
egun bat lasai igarotzeko  
oberik ezin aurkitu.  
Zure begiei gustoa eman,  
gorputza arnas-berritu,  
neska-mutillak jolasteko ere  
leku politak baditu,  
etzera mendi aundia baiña  
jendeak maitea zaitu.

8/ Erritar batek nolatan aztu  
Guadalupe'ra biria?  
Or dago gure eliz polita,  
apaiña ta dotoria.  
Bere barruan izar eder bat  
zerutikan eroria,  
ondarrabitar guztion Ama  
ta erriko zaindaria,  
naigabe danak aztutzen ditun  
Guadalupe'ko Maria.

9/ Besterik gabe agurtzen zaitut  
gaiñera biotz barrendik,  
Lezo'n baitaukat nere kabia  
zugañ aldendu nintzandik.  
Artu itzazu gaur zorionak  
zure seme batengandik,  
bizimoduko aldakuntz batek  
nau ni eraman emendik,  
maite zintudan lenago eta  
maitea zaitut oraindik.

*Goiz-Argi, 1973.X.15.*

## EMAKUMEA ALKATE

Gaur arritzekoa ez bada ere, Euskalerrian emakumeak alkate jartzen asi ziranean, ni arritu egin nintzan. Oietako bat Ondarrabi'n egondu zan eta nik, jaiotzez Ondarrabi'koa izanik, bertso auetxek eskeñi nizkion:

- 1/ Aste santua gaiñean degu,  
garizuma azkenetan,  
kristau maiteok, ekin zaiogun  
gure animen lanetan.  
Gauza guztiak aldatu dira  
oraintxe mundu onetan,  
ta ni bertsoan astera noa  
-zertako egon penetan?–  
adieraziz zer gertatzen dan  
gure alderdi auetan.

- 2/ Guk, euskaldunok, jaioterria  
beti izan degu maite,  
nere kabia Ondarrabi zan  
jaio ta ezkondu arte;  
gaur ere oso urbil bizi naiz,  
ez nintzan joan aparte,  
lengo batean egunkariak  
berri au eman digute:  
emakume bat jarri zaigula  
Ondarrabia'n alkate.
- 3/ Beraz, Mercedes, iritxi zera  
desio zendun tokira,  
orain artean Aginagalde  
exeritzen zan aulkira.  
Ikusten degu lan egiteko  
zuk eztezula kupira,  
seguru nago, zure asmoak  
zuzen aterako dira,  
Ama laztan bat or baitaukazu  
Guadalupe'tik begira.
- 4/ Errian alde saiatzea da  
daukazun eginkizuna,  
erakutsiaz Ondarrabi'ri  
zuk diozun maitasuna.  
Pixu astuna izan diteke  
zuk orain artu dezuna,  
au da Lezo'tik erritar batek  
gaur zuri opa dizuna:  
Zeruko Aitak eman deizula  
premizko argitasuna.



## BERRIRO GABON-JAIAK

Maitasuna eta alaitasuna eskatzen diguten gau eta egunak dira Gabon-jaiak. Bañan gure artean betiko leloa: gorroto edo alkar ikusi eziña, ez bearrak, lanik ezak, naigabeak baztar guztietan eta etorkizun onaren itxaropenik ez. Gauz oiek bururaturik, orain dala urte batzuek jarritako bertsoak datoz ondoren:

- 1/ Ixillaldi bat egin ondoren  
berriro emen nazute,  
egun auetan gure lurrean  
bertsoa nork ez du maite?  
Bakar batzuek jarri ditut gaur,  
sail aundirik ez tet bete,  
jai eder auen atsegingarri  
ortxen dijoazkitzute.

2/ Orra berriro Gabon-jaietan,  
senide biotzekoak,  
apaindu dira kale zabalak,  
argitu dira txokoak.  
Naiz-ta jai auek izan danontzat  
berdin etorritakoak,  
sendi batzutan irriparra ta  
bestetan negar-malkoak.

3/ Anai batzuek giltzapetuak.  
besteak soldadu joanak,  
ta beste asko gaitzaren mende  
gaxo-etxetan daudenak.  
Ta beste zenbait bearrezetan  
azken arnasa emanak,  
oien etxetan zer alaitasun  
ekarriko du Gabonak?

4/ Lantegitako konpondu eziñak,  
danetan ekaitz zakarra,  
millaka esku lanikan gabe,  
nunbaitetik jan bearra.  
Eguberriak eztakarkite  
alaitasuna bakarra,  
leku askotan pozaren ordeztan  
naigabea ta negarra.

5/ Urtea azken egunetan da,  
bat geiago bizkarrean,  
jaio giñanok eriotza zor  
urruti edo urrean.  
Gorrotoa ta bekaizkeria  
dabilzkigu indarrean,  
zer gizatasun azaldu bear  
degu Jesusen aurrean?

6/ Euskalerritik kanpo zaudeten  
millaka anai euskaldun,  
badakizute gure lur ontan  
gauzak nolatan dauzkagun.  
Zeru ta lurren jabe danari  
erregutu dezaiozun,  
Urte Berri on zorientsu bat  
guztiok izan dezagun.

*La Voz de España, 1974.I.5*

## APUSTU GOGOR BAT

Egun batean, iru gizonen arteko apustu bat ikusi nuan Tolosa'n arri jasotzen. Alde batetik Endañeta, eta bestetik Paskualsoro eta Tapia bikoteak. Bion artean jaso bear zuten, eta Endañetak bakarrik, jakiña. Emeretzi arruako arriarekin neurtu ziran eta bikoteak irabazi. Bi beti bi izaki, naiz txikiagoak izan. Nik, orain datozen bertso auek jarri nituan ondore artan:

- 1/ Epailaren irugarrena,  
denbora mingotz, kaxkarra,  
joko bikain bat zegon Tolosa'n  
gaur erabaki bearra.  
Alde batetik bi gizon trebe  
eta bestetik bakarra,  
an ikusi da gizatasuna,  
borondate ta indarra.

2/ Jokolaritan bein da berriro  
Endañetaren izena,  
kristau artean arrigarria  
egun batez sortu zana.  
Amarengandik munduratu dan  
gizonik kementsuena,  
nork bere begiz ikusi gabe  
sinistu ezin leikena.

3/ Len emezortzi arruarekin,  
oraingoan emeretzi,  
berriro ere zu zein zeraden  
orra garbi erakutsi.  
Dituzun danak eman dituzu,  
jendea zoratzen utzi,  
jokolaritan nork ote dauka  
gaur zuk ainbat kontzientzi?

4/ Joxe Manuel, ez al zera ari  
tratu txar geiegi artzen?  
Nere ustetan gauz orrek eztu  
ondoren onik ekartzen.  
Arrigarrizko lanak ikusten  
iñor ez gera aspertzen,  
pixuak eztu gero mugarik  
zeuk ezpadiozu jartzen.

5/ Gaur zuk jokoa galtzearekin  
ez gera asko arritu,  
bentaja aundiak eman bearrak  
ontara beartzen zaitu.  
Egindakoak egin ondoren,  
naiz galtzea egokitu,  
zure izena gaur bezin goian  
sekula ezta gelditu.

6/ Zer dira, jaunak, zure gerriak,  
belaunak eta besoak,  
beldurgarrizko arkaitz zar oiek  
ainbeste aldiz jasoak?  
Zuri begira pasa ditugun  
une atsegin gozoak!  
Omenaldi bat zor dizu zuri  
gaur Euskalerrri osoak.

7/ Nere bertsoak ez izan arren  
zuk merezi aiñakoak,  
bai maitasunez jarriak eta  
gogoz eskeñitakoak!  
Barka itzazu uste gabe  
gaizki itzegindakoak,  
urte askotan sasoi orrekin  
gorde zaitzala Jainkoak.

*La Voz de España*, 1974.III.8

## URTERO MODA BERRIAK

Gaur ezerekin arritzen ezpagera ere, urte-tik urtera nabarmenago dijoaz moda-kontuak. Esaera zar bat bada: «ume jaio ta ume biurtu». Nik esaera orri jazkeran ematen diot itxurarik geiena: larru gorririk jaio, urte batzuetan geuren gorputzak erropaz estalirik ibili eta orain berriro larru gorririk ibiltzeko zaletasuna ote datorkigun. Orain dala urte batzuek, udara aldean emakumeen moda edo jazkerak gai arturik, ondoko bertso auek moldatu nituen:

- 1/ Maitasun guztiz agur berriro,  
adiskide ta lagunak,  
bertso berrien zale zeraten  
benetako euskaldunak.  
Zuetaz iñoiz oroitzen gera  
eginkizun au degunak,  
bertso batzutan biribilduaz  
bururatzen zaizkigunak.

- 2/ Udaberriko azken egunak,  
eguzkia indarrean,  
eta urtero moda berriak  
gure begien aurrean.  
Kale, ostatu, kamio, mendi  
eta itxas-bazterrean,  
emen dabilta soñeko erropa  
danak kendu bearrean.
- 3/ Moda-kontuan emakumeak  
aipatu bear lenbizi,  
iñolaz ere nabarmenago  
ezin litezke ikusi.  
Neurriz kanpora gauza guztiak  
ematen dute itxusi,  
gaur zorigaitzez kristau izenik  
askok eluke merezi.
- 4/ Lendik iztarrak baziran bixtan  
gaur bizkar eta gerriak,  
azaldu dira goi eta beak,  
atzeak eta aurriak.  
Bi trapu puxka zauri gañean  
tirita gisa jarriak,  
gorde bear dan puskari ondo  
artzen dizkate neurriak.



5/ Aingeru bear luketen asko  
dabil aberien gisan,  
oien artean gauza zuzenik  
iñoiz eliteke izan.  
Ondartzarako trajearekin  
or sartzen dira elizan,  
santu guztiak ikus dezaten  
zer patxaretan dabilzan.

6/ Guraso asko dabil sail ortan,  
ez gaztetxoak bakarrik,  
errespetu ta jatortasunak  
orain eztauka indarrik.  
Gorputz gaiñean ezpaldin bada  
estali geion bearrik,  
gure amonak kastua pranko  
egiten zuten alperrik.

7/ Txorikumeak kabian daude  
lumaz ondo jantzi arte,  
zugaitzak beren ostorik gabe  
tristura ematen dute.  
Mendi, soroak, beren mamia  
berdez jantzirik daukate,  
zuek erropa danak kenduta  
ederrago al zerate?

*La Voz de España*, 1974.VI.23  
*Goiz-Argi*, 1974.VI.10

## AZKEN AGURRA

Amabost urtean babesa egindako estalpe bat uzteak beti ematen du alako naigabe bat. Danik-eta txarrena izanda ere, maitasuna ar-tzen dio nork bere bizilekuari. Guk orain be-deratzi urte, Gurutze Santuaren egunez, utzi genduan ordu arteko gure kaiola. Bañan au-rrez, ondoren datozen bertso auekin egin nion azken agurra:

- 1/ Bertso jartzera noa berriro  
naiz ez egon oso alai,  
emengo etxe-botatze auek  
oraingoz artu ditut gai.  
Alde bateko autopista ta  
bestetik pabrikak nunai,  
mesede asko egingo dute  
baiña kalteak ere bai.

2/ Gertatzen dana aitortu gabe  
ezin egon naiz iñola,  
anai maiteok, jakin zazute  
naigabeturik nagola,  
ikusirikan ainbeste etxe  
lur jo bearra dagola,  
oietako bat aspalditxoan  
geu bizi geran kaiola.

3/ Kontzientzirik eztagolako  
kristau askoren artean,  
uste gutxien degun garaian  
abixu txarrak atean.  
Batzuentzako mesede dana  
bestientzako kaltean.  
Noiz berdinduko dira okerrak?  
Beste mundura joatean.

4/ Ainbeste teilla, ainbeste egur,  
ainbeste arri labratu,  
gure aitonak oiek zutitzen  
etziran gutxi nekatu.  
Orain makina zarren bitartez  
txikitu edo urratu,  
pekaturikan baldin badago  
ori bai dala pekatu.

5/ Gure sendian zero txiki bat  
zu izan zera munduan,  
neke guztien atsedean ona  
zuga arkitzen genduan.  
Ekaitz guztitan babes goxoa  
guri eskeiñi onduan,  
estalpe maite bedeinkatua,  
au merezi al zenduan?

6/ Zu zihan gure maitasunezko  
jolas-leku atsegiña,  
zu zihan gure prutu berrien  
seaska goxo, apaiña.  
Guk etzaitugu inoiz eskertu  
merezi zenduan aiña,  
orra nolatan eman dizuten  
mesedearen ordaiña.

7/ Azken agurra egiten dizut  
mai gañean auspezturik,  
garai batean enuan uste  
onetara irixterik.  
Gaur eztaukagu zure barruan  
ezertxo ere uzterik,  
begietatik ixuritako  
negar-malkoak besterik.

## BERRIRO GABON-JAIETAN

Lezo'tik Oiartzun'go Arragua ballarara etorri ondorengo Gabon-jaiak zirala-ta, urteroko edo urte geienetako oiturari jarraituaz, ondorengo bertso auek moldatu nituen:

- 1/ Irten kanpora, bertso maiteok,  
asmo onean jarriak,  
goza ditezen bertsozaleen  
begi eta belarriak.  
Berriro ere emen ditugu  
Gabon da Eguberriak,  
nere agurrik eztitsuena,  
senide maitagarriak.

2/ Jai eder auek inguratzean  
bazter guzitan ezagun,  
iñoiz ainbeste poz ez dagola  
garbi aitortu dezagun.  
Guraso askok semeak palta,  
beste batzuek alargun,  
izaera au onela da-ta  
pazientzia artzagun.

3/ Zeru aldean laiño illunak,  
ekaitz gogorak lurrean,  
etorkizuna zearo goibel  
geure begien aurrean.  
Egiten degun guztia oker  
zuzen egin bearrean,  
Gabon alaiak igarotzeko  
ez gaude leku txarrean!

4/ Iñola ezin konpondu gera  
morroi eta nagusiak,  
argatik daude une illunak  
ta ondoren itxusiak.  
Aztu zaizkigu Jaungoikoaren  
legeko agindu guziak,  
batzuek neurritz kanpora eta  
besteak erdi gosiak.

5/ Osasunetik ondo ez dauden  
millaka urrikalgarri,  
sano gaudenok keja bagera  
aiek nola pozez jarri?  
Probatu gabe ez leike jakin  
egoera orren berri,  
bakoitzak berak al duan eran  
lagun deiogun alkarri.

6/ Zenbatek ez du bere etxean  
pasa bearko Gabonik?  
Ez pentsa gero zuetaz iñoiz  
aztuta bizi geranik.  
Besarkadarik maitekorrenak  
bialtzen dizkitzutet nik,  
beste urte bat iritxiko da,  
ez galdu itxaropenik.

7/ Alkarrentzako gorrotoz dauden  
ainbeste anai euskaldun,  
begira gure kontzientziak  
zer posturetan dauzkagun.  
Utzi gaurtikan asarre danak,  
egin benetako lagun,  
maitasunezko urte berri bat  
ia etorritzen zaigun.

8/ Izan gaitezen biotz bigunak,  
ez burni edo marmolak,  
ez dezaigula iñoiz irakin  
gure zaiñetan odolak.  
Alaitasunez goza ditzagun  
bakoitzak geron kaiolak,  
guztiori auxe opa dizute  
Oiartzun'dik Manterola'k.

*La Voz de España*, 1974.XII.22.  
*Goiz-Argi*, 1975. I. 1.



## ERANTZUNA

Orain dala zortzi bat urte, Xanti Zabala bertsolariak bertso batzuek moldatu zituen gure jaiotetxeari buruz eta nere bertso jartze-ko moduari buruz eta zerbait era ontan mintzatuaz; eta bertsoz eman nion nere erantzuna:

- 1/ Jainko maitea, doai batzuek  
neri eman zizkidatzun,  
bertsoa ainbat maite duanak  
ori derrigor bear zun.  
Ara batzuek, iñork nai balu  
irakurri edo entzun,  
Zabala orren galdera bati  
gaur nai nioke erantzun.

2/ Joan dan asteen zure bertsoak  
irakurri nituan nik,  
lagun zar bati ezin ukatu  
nere borondate onik.  
Neregandikan naiz-ta ez irten  
balio aundiko lanik,  
dakidan pixka azaldutzeko  
ez daukat eragozpenik.

3/ Jaiotetxea ustutze orrek  
atera zaitu onetik,  
lenbizikoa ez da izandu,  
beste askotxo lenotik.  
Itz auek sarri irtetzen ziran  
anaiaren barrenetik:  
«Irabazirik etzegok, motell,  
emengo gure lanetik».

4/ Zuk badakizu baserri txiki  
eta nekosoa zana,  
andik aparte lantoki baten  
egin bear zuan lana.  
Urte guztia neketan pasa  
eta alperrikan dana,  
nik oso ondo ikusitzen det  
anaiak egin duana.

5/ Amasei urte dira ni andik  
irtenikan ezkonduaz,  
geroztikan maiz joan izan giñan  
anaiari lagunduaz.  
Oraindik iñoiz bixitatzen det  
orma zarrak laztanduaz,  
begietara etortzen diran  
negar-malkoak kenduaz.

6/ Zuk diozunez, zure aita ere  
an jaioa degu noski,  
ordutik ona artuko zuan  
ainbat aize ta eguzki.  
Gizon zintzoa eta umilla,  
itz bat bakarrik ez gaizki,  
Joxe Antoniok ango berriak  
guk bezin ondo dakizki.

7/ Esaten zendun bertsolaritzan  
banuala zerbait grazi,  
lagun zar Xanti, adarra jotzen  
arren etzaitezela asi.  
Dakidan pixka nerezkoa da,  
au ez liteke erosi,  
ni bezelako maixuengandik  
askorik ezin ikasi.

8/ Len oso gertu biziak gera,  
gaur zerbait urrutiago,  
gure arteko maitasun ona  
len bezin urrean dago.  
Eutsi deiogun umoreari  
iñoiz baiño gogorrago,  
sendi danari milla zorion,  
agur, lagun Xantiago!

*Goiz-Argi*, 1975. III. 5.

## RETEGITARRAK TXAPELDUN

Erasun'go Retegi osaba-illobak ezagunak ditugu pelotarien artean, ezagunik baldin bada. Osaba lenengo maillan txapeldun zegoela, illoba bigarren maillako txapeldun jarri zan. Nik bertso auek jarri nituen orduan:

- 1/ Kanta dezagun, bertsozaleok,  
alai ditzagun bazterrak,  
pelotariak ditut gaurkoan  
gai erabili bearrak.  
Guztiok ditut oso maiteak,  
ez txapeldunak bakarrak,  
baiña oraingoz danen gaiñetik  
gora ditzagun naparrak.

2/ Gaur Naparroa'n itzal aundia  
daukate eskuz pelotan,  
argi ta garbi erakutsiak  
ditugu aurtengo ontan.  
Modu ortako etorkizuna  
ez dago leku askotan,  
zarrak sasoian baldin badaude  
gazteak ez daude lotan.

3/ Anka ta beso, gerri ta buru,  
jardunak dira lanean,  
batak bestea besarkatuaz  
ordua zetorreanean.  
Orra aurtengo bi txapeldunak  
sendi baten barrenean,  
lenengo maillan osaba eta  
illoba bigarreanean.

4/ Juan Inazio, zure asmoak  
orra nai bezela bete,  
aurtengoakin berdindu dezu  
Ilario Azkarate.  
Lenen maillako seinata txapela  
etxeratuak zerate,  
geiagori're ori berdintzen  
asko kostako zaiote.

5/ Pelotarien baratz goxoa  
gaur zu zaitugu, Erasun,  
lendik txapeldun baldin baziñan  
orra berri bat nun dezun.  
Aurrera, gazte, ea osabari  
txanda artutzen diozun,  
bear diranak erakusteko  
a zer maisua daukazu!

6/ Lengo arbolak sasoi betean,  
berriak frutu ematen,  
era ortako aukera ez da  
nai dan lekuan izaten.  
Pelota ainbat maite duan bat  
ari zaizute esaten,  
ez dakizute zein pozgarri ta  
txalogarriak zeraten.

7/ Zuenganako daukadan naia  
orra nik adierazi,  
anai bezela maite zaituztet  
naiz urruti xamar bizi.  
Eskeintza auxe egin nai nuke  
naiz zuek geio merezi:  
milla zorion Retegitarrei,  
berdin Julian Lajos'i.

*La Voz de España*, 1975. V. 6.  
*Goiz-Argi*, 1975, V. 28.

## PELOTA, EUSKAL JOKOA

Bertso-jartzaleentzat txapelketa bat eratu zuten, orain dala zortzi bat urte. «Pelota, euskal joko» jarri ziguten gaia. Xalbador zana atera zan txapeldun. Nik ondorengo auek jarri nituen:

- 1/ Gipuzkoa'ko Euskal Pelota  
Alkarteako anaiak  
aurten betetzen omen dituzte  
beren urrezko eztaiak.  
Ori dala-ta jarri dituzte  
bertsoak jartzeko gaiak,  
bertsoen bidez bijoazkie  
nere zorion alaiak.



2/ Pelota euskal jokoa dala  
gaur jarri diguzute gai,  
euskaldun danak or daude orain  
gure erantzunaren zai.  
Jakintsuren bat naizenikan nik  
ez nizuteke esan nai,  
baiña, kristauok, gure pelota  
euskal jokoa dala bai.

3/ Joko garbi ta txukunik bada  
pelota degu benetan,  
euskal oiturak dauzka berekin  
bere jokera danetan.  
Euskaldun amen seme jatorrak  
joko-leku geienetan,  
zenbat landare sortu ote da  
gure lur maite onetan?

4/ Euskal jokoeak ezaugarri au  
beti berekin daukate,  
euskaldun askok diru-jokoan  
grña aundia baitute.  
Ori ezean kirol etxeak  
nola ainbat aldiz bete?  
Pelota euskal jokoa degun  
ortatik kontuak ate.<sup>1</sup>

---

<sup>1</sup> Ate: atera.

5/ Partiduren bat iñoiz danean  
igande-eguardian,  
abade jaun bat an jarriko da  
joko-lekuan erdian.  
Amabietan orazio bat  
danok euskera garbian,  
zein ikuspide politak dauden  
euskal jokoak nor dian.

6/ Badago beste argibide bat  
errez konturatzekua,  
baietz aitortzen didazutela  
jarriko nuke lepua.  
Baldin pelota ezpalitzake  
benetan euskal jokua,  
telebistean sarriagotan  
izango luke lekua.

7/ Bertso batzutan naiz nik agertu  
ulertutzeko ainbeste,  
oraindik dana garbi dagonik,  
arren, etzazutela uste.  
Euskera eta pelota dira  
benetan senar-emazte,  
pelotariak zeraten danok  
oien semeak zerate.

- 8/ Alkandora ta praka txuriak,  
oiñetakoak berdiñak,  
batzuk gerriko gorriarekin,  
besteak berriz urdiñak.  
Pelotari ta pelota dira  
larros eta krabeliñak,  
euskera eta Euskalerrria  
loretxo oien jardiñak.
- 9/ Euskalerrrian bakarrik ez da  
jardin eder au loratu,  
leku geiotan badaude onak,  
au ez nezake ukatu.  
Baiña onoko itz au esaten  
ez naiz oraindik nekatu:  
pelota euskal jokia dala  
naiz erdaldunak jokatu.
- 10/ Esku, remonte, xexto ta pala,  
zenbat oitura pozgarri,  
bakoitzak bere trebetasuna  
erakutsiaz alkarri.  
Pelotari on baten doaiak  
nik ezin nezazke neurri,  
nere iritziz oietzek dira  
euskal jokoen oiñarri.

11/ Euskal Pelotan Alkarteako  
langille agurgarriak,  
amabi bertso ortxe dijoaz  
gai polit orri jarriak.  
Al dan garbien azaldu ditut  
nik dakizkidan berriak,  
orain artako dagon epaiak  
artuko ditu neurriak.

12/ Agur, Alkarte txalogarria,  
jarrai gogotsu lanean,  
pauso bikaiña eman dezute  
pelotaren izenean.  
Gure bertsoak ontzat badatoz  
zuen Alkartasunean,  
berriro ere agindu lasai  
zeuek nai dezutenean.

*La Voz de España*, 1975. VIII. 8.

*Goiz-Argi*, 1975. VIII. 27.

*Pelota, euskal jokoa* liburua, urte berean Donosti'ko Aurrezki Kutxa Munizapalak argitaratu eman.

## NAPARROA'KO EUSKAL KIROLARIAK

Beste batean, «Naparroa» jarri ziguten gaia bertsoak jartzeko. Nik Naparroa'ko berri gutxi nekien eta, Naparroa'ko euskal kirolariak gai artuta, ondorengo auek moldatu nituen:

1/ O, Naparroa, zugana nator  
alaitasunez beterik,  
umoreari zuk ez diozu  
iñoiz itxitzen aterik.  
Ez-jakin batek ez dauka iñoiz  
ezer asko egiterik,  
borondatea agertutzeak  
ez du egingo kalterik.

- 2/ Euskal jokoak zaizkit gogozko  
euskaltzalea izanik,  
ta ez det uste leku txarrera  
abiatua naizenik.  
Naparroa'ri etzaio falta  
euskaldun joko-gizonik,  
oietxek bertsoz goraldutzeko  
asmoak artu ditut nik.
- 3/ Euskal jokoak maite ditunak  
pelota nola ez maite?  
Ta Naparroa'n jolas eder au  
oso goian daukazute;  
or danetikan dago aukera  
esku, pala ta remonte,  
beartutzean danak ederki  
dantzatutzen dituzute.
- 4/ Iru edo lau napar badatoz  
pelota-joko guzita,  
poztu zindezke zeure semeak  
era ortan ikusita;  
jai eta aste plazarik plaza  
nagikeriak utzita,  
ikusle danen atsegingarri  
erropa zuriz jantzita.

5/ Aizkora degu beste joko bat  
polita eta bikaiña,  
ta ontan ere Naparroa'kin  
dantzatu bear mingaiña.  
Aizkoran maixu arrigarriak,  
egurra nai duten aiña,  
zarrak gainbera asi baiño len  
beti badator ordaiña.

6/ Nere gogoan iru edo lau  
berdingabe izan dia:  
Garziarena, Berekoetxea,  
Latasa ta Astibia;  
oien izenak galdu baiño len  
or sortu da Mindegia,  
mundu guztia desapiatu,  
kontrariarik gabia.

7/ Korrikarako naparrak beti  
izan dute berezkoa,  
gaur orren baju aurkitutzea  
ez da gauza legezkoa.  
Nun dezu orain urte batzuek  
zendunaren ordezkoa?  
Oraindik danok gogoan degu  
Txikito Arruiz'koa.

- 8/ Iñoiz laisterka asitakoan  
beste norbaitekin neurtzen,  
nere begiak ari begira  
iñoiz etziran aspertzen.  
Gaurko gazteak ezpadigute  
arreta geiago artzen,  
zaill izango da Euskalerrian  
aren moduko bat sortzen.
- 9/ Orain artean Naparroa zan  
arrijasotzalle gabe,  
erdipurditan ibiltzekero  
geldirik egonda obe.  
Leitza aldean mutil koskor bat  
asi zan lanean trebe,  
orain artean ezpazenduan  
gaur bazera baten jabe.
- 10/ Karga jasotzen arrigarriak  
izan dira zenbait mutill,  
berdingabe bat sortu zaigula  
aitortu dezagun umill;  
nola zilindro, ala kuadro,  
kubiko edo borobill,  
orain arteko marka guztiak  
ankaperatuaz dabill.



- 11/ Entzule maite, uste al zendun  
kristau bat orren gazterik  
ogei arrua bizkarreratzen  
zeure begiz ikusterik?  
Ta berreun kilo esku batekin  
jasotzera irixterik?  
Garai batean olako gauzik  
etzegoan sinisterik.
- 12/ Zugandik gauza aundiagoak  
entzungo ditugu aurki,  
naiago nuke zure izena  
nola goraldtu baneki.  
Jainkoak emandako doaiak  
alperrik zertan eduki?  
Egindakoa or gelditzen da  
bejondaizula, Iñaki.
- 13/ Naparru maite, jaso itzazu  
nere bertso ta kantuak,  
poztutzen naute zure oiturak  
eta zuen talentuak.  
Maitatzen ditut seme kementsu  
oien guraso santuak,  
muskill mardulak bota zituzten  
zugaitz zar oien mentuak.

14/ Agur, Naparru biotzekoa,  
agur millaka naparri,  
izan benetan euskaltzaleak,  
izan beti Euskalerra;  
zabaldu gure euskal jolasak,  
eutsi oitura zar orri,  
biotzez auxe eskatzen diot  
San Frantzisko Xabierri.

## ZORITXARREKO EZBEARRAK

Orain dala urte batzuek, Arragua auzoko Agerre-zar baserriko mutil gazte bat il zan kamioko ezbearrez. Ondore artan, bere koñadu Bernardo Manterola etorri zitzaidan, aren illobi gañean jartzeko bertso baten eske. Nik ez nuan ondo ezagutzen mutil ori; oso euskaltzalea eta bertsozalea zala esan zidaten. Orduan nik, bertso baten lekuan, onoko iru auek bialdu nizkion, iru oietatik bat beurek aukeratu zezaten.

- 1/ Ez bear batek itxi zituen  
munduko nere ateak,  
ainbeste lagun or utzi ditut  
begiak malkoz beteak.  
Zeruko Aita, barka itzazu  
nik egindako kalteak,  
agur, guraso biotzekoak,  
agur, senide maiteak.

2/ Jaunak gazterik dei egin zizun,  
ain zendun bizi laburra,  
ezbear batez odol gorritan  
estali zenduen lurra.  
Euskal oituren zalea ziñan,  
biotz bigun ta xamurra,  
argatik bertsoz egin dizugu  
munduko azken agurra.

3/ Euskal abesti eta bertsoak  
bere gogozko ziraden,  
orregatikan asmo eder bat  
sartu zait biotz barrenen.  
Bertso batean otoitz goxo bat  
idaztera noa emen:  
Jaunak Beregan jaso dezala  
beti-betirako, amen.

## BILINTX ZANAREN OROIMENEZ

1976'garren urtean bete ziran eun urte, Bilintx bertsolari aundia il zala. Ori zala-ta, «Bilintx-urtea» izenean jai-aldi asko ospatu ziran Donostia'n.

Bertso goxo eta atsegin asko jarri zituen Bilintxek bere denboran, beti lorez-lore ibiltzen zan erlea bezela. Irakurri ditugun aren bertsoak ala adierazten dute beintzat.

Urte artan, «Bilintx-urtea» gai artu ta beste bertso-jartzalle geienak bezela, nik ere eskeñi nizkion nere aleak.

- 1/ Anai-arreba bertsozaleok,  
astera noa lanean,  
urtebeteko ixillaldia  
igaro ondorenean.  
Zuen begiak gozatu nairik  
borondate onenean,  
bertso batzuek jartzera noa  
Bilintx zanan izenean.

- 2/ Bilintx urtea ospatzen degu  
aurtengo urte guztian,  
ori dala-ta jaialdi asko  
jarri dira Donostia'n.  
Bertsolariak bertsoak jartzen  
batian eta bestian,  
nik ere zerbait esan bearra  
badaukat nere ustian.
- 3/ Berdin gabeko doaia zendun  
mundura sortu ziñandik,  
amoriozko lore politak  
zabaldu ziran zugandik.  
Eun urte luze igaro arren  
joan ziñala emendik,  
zure izena eta bertsoak  
emen dabilta oraindik.
- 4/ Maitasun-gaiak zitun gogozko  
ain maitekorra izanik,  
etzazutela uste ni ere  
gauz orren etsai naizenik.  
Bide ortatik jarraitzeakin  
ez legoke zer esanik,  
samingarri da, baiña lur ontan  
gaur ez dago maitasunik.

- 5/ Itxi ziraden zure begiak,  
kendu zituzten Fueruak,  
illundu ziran Euskalerriko  
itxas, mendi ta soruak.  
Etorri ziran etsai gaiztoak,  
agur gure aingeruak,  
orduko zure bertsoen orde  
gaur burruka ta tiruak.
- 6/ Lorezko kantuz alaitu zendun  
zuk Euskalerra guztia,  
ai, zure ezpain goxo aietan  
beti bazegon ezta;  
maitasun-bertsoz beterikan zuk  
utzi zendun Donostia  
sarritan dago negar-malkoaz  
eta odolez bustia.
- 7/ Egiak garbi aitortutzeko  
zertan bear degu lotsa?  
Itzez guztiok jostaille gera,  
obraz ezpata zorrotza;  
argatik dabil ainbat burruka  
eta ainbat eriotza,  
mingaiña degu oso biguna,  
altzairuzkoa biotza.

- 8/ Emen guztiok degu arrazoi  
bakoitzak bere ustetan,  
«Ni pekatari» ez dakit zertan  
ikasi gendun gaztetan.  
Armak lanean, mendi, kamio  
eta erriko pestetan,  
errugabeak pagatu bear  
amarretatik bostetan.
- 9/ Geure izkuntza goraldtu utsez  
garrotea bizkarrean,  
geure pitxia zabaltzerik ez  
geure begien aurrean.  
Ematen degun pauso guztia  
etsaiaren beldurrean,  
begira nola bizi geraden  
geu jaiotako lurrean.
- 10/ Gure lur ontan zenbait aitonek  
barruan daukaten miña,  
bizi dirala beren pitxia  
emen ikusi eziña.  
Al dan azkarren loratu bedi  
Euskalerriko jardiña,  
danen aurrean zabal dezagun  
geurea dan ikurriña.



11/ O, biotzeko gure Donosti,  
Bilintx zanaren seaska,  
nere eskuan dabillen lumak  
egin du zenbat lardaska;  
neurritz kanpora ote dabillen  
badaukat naikoa kezka,  
utsegin badet zugana nator  
barkazioa galdezka.

12/ Bertso-jario jarraitu dezan  
Bilintx zanan iturriak,  
nik ale auek eskeintzen dizkat  
bere gorantzan jarriak.  
Danok deadar egin dezagun  
urratuaz eztarriak:  
Gora Donosti berdingabea  
ta gora euskal erriak!

*La Voz de España*, 1976-VIII-14 eta 15

## XALBADORREN ONDOEZA

Bolara batean ekaitz-aldi gogorra izan genduen, bertsolari aundi batzuen ondoezak ziralata. Lenengo Uztapide zanari gertatu zitzaion bertso kantatzeari utzi bearra. Ondoren Manuel Lasarte'k egin zuen ixil-aldi bat naiko luzea, gaur zorionez berriro Euskalerrian zear kantari baldin badabil ere. Eta geroxeago Xalbadorri etorri zitzaion ondoeza. Biotza gaixotu zitzaion. Ori aski ez dala, zugaitz-adar batek begia zauritu, eta naiko beldur betiko galduko ote zitzaion. Ori zalata, nik bertso auek eskeñi nizkion:

- 1/ Berriro ere badet neregan  
bertso jarzeko bidia,  
ta orain ere bertso illunak,  
auxen dago komeria!  
Beartsuentzat sarritan dago  
era ontako saria,  
begi batekin gelditu zaigu  
Xalbador bertsolaria.

2/ Joan dan asteko *Goiz-Argi*'tikan  
jaso nitun albisteak,  
bertsolaria maite dunantzat  
benetan berri tristeak.  
Euskaldun danok goibeldu gaitu  
zuri begia ixteak,  
ez dizu noski miñik emango  
ni bertso jartzen asteak.

3/ Beraz gaizkille izandu dana  
arbola baten adarra,  
txarkerirako edozer gauzek  
beti badauka indarra.  
Zer naigabea emango zizun  
betiko gorde bearra  
ainbat urtean zuri argia  
egiten zizun izarra!

4/ Ezbear ori aski ez dala  
orain biotzetik eri,  
ene, Xalbador, zure gorputzak  
badauka naiko komeri.  
Al dan azkarren uxatu dedin  
zure gaixotasun ori,  
beso zabalik eskatzen diot  
zeru-lurren Jabeari.

5/ Euskalerrria ainbat urtean  
zuk serbitu dezu jator,  
zu maitatutzen etzaituanik  
lur ontan ote da iñor?  
Gertakizun au entzun ondoren  
auxe galdetzera nator:  
len Uztapide, gero Lasarte  
ta orain berriz Xalbador?

6/ Gure biotzak nola poztuko  
jarririk zenbait enpeiño,  
aundinai eta arrokeririk  
etzenduan egundaiño.  
Ixilik egon naiago dezu  
ezer gaizki esan baiño,  
goxoa eta xamurra zera  
burutik oiñetaraiño.

7/ Euskalerrriko anai-arrebok,  
entzun guztiok batean,  
gaixorik dagon anai orretaz  
arren! erruki gaitean.  
Gure morrontzan ibili zaigu  
ez dakit zenbat urtean,  
bere biotzan ondasun dana  
guretzat eman artean.

8/ Emen aurpegi eman bearra  
dago datozkigun gauzei,  
zaitu ditzagun geren buruak,  
utzi deiegun jolasei.  
Agur, Xalbador, al dezunean  
zatoz guregana lasai,  
zu ainbat maite zaitugun danok  
emen egongo gera zai.

*La Voz de España*, 1976-VIII-29.  
*Goiz-Argi*, 1976-IX-11.

## BERRIRO ERE GABON-JAIAK

Orain dala zazpi urte Gabonetan jarritako bertsoak datoz ondoren. Beste urte bat geiago bizkarrean, bañan ala ere umore ona nik beintzat. Zori txarrez, danontzat ez da alaitasunik izaten, jai oiek iritxi arren. Aiek ere gogoan nituala moldatuak dira.

1/ Orra berriro Gabon-jaietan  
urte bat geiagorekin,  
zer buruzpide etorri zaidan  
nai al zenduteke jakin?  
Zer egiñikan ez neukan eta  
bertso jartzeari ekin,  
aberastasun auxe badaukat:  
umore ona nerekin.

- 2/ Gabonak eta Eguberriak  
beti dira nabarmenak,  
urte guztiak dituan gau ta  
egunik pozgarrienak.  
Gozatzen dira gure gorputzen  
eta animen barrenak,  
zer esan berriz urte guztian  
bein etxera datorrenak?
- 3/ Naigabe aundiz aitortzen diet  
zenbait mutil da neskatzki,  
badakizute guk ez degula  
zuentzat aterik itxi;  
zoritxarrean, baditugu, bai,  
eta gaiñera ez gutxi,  
etxeratzerik ez daukatenak  
naiz Gabon-jaiak iritxi.
- 4/ Gaitz maltzuraren mendean dauden  
millaka urrikgarri,  
ezbearretan zauritutako  
beste ainbeste elbarri,  
Gabon atsegin zoragarri au  
naiz-ta berriro etorri,  
aientzat ez du pozikan eta  
alaitasunik ekarri.

5/ Gaur egon arren oso indartsu,  
sasoiko eta gordiña,  
pentsatu gero gerta leikela  
biarko gorputz egiña.  
Erabiliko ote genduke  
ainbat gorroto ta griña,  
zein ezerezak geran pixka bat  
konturatuko bagiña?

6/ Negu beltzean sartuak gera,  
urte zarra azkenetan,  
zure errua ez izan arren  
mingotza ziñan benetan!  
Naigabe latzak utzi dituzu  
gure lur maite onetan,  
askok gogoan izango zaitu  
beren biotz-barrenetan.

7/ Zarrak agurra egin orduko  
berria gurekin dago,  
etorkerari begiratuta  
gero ta itxusiago;  
pake santuan konpondu baiño  
alkar txikitu naiago,  
kristaua ez da errespetatzen  
zakurra baiño geiago.



8/ Gure biotzak loturik daude  
griña gaiztoaren katez,  
alkar maitatuz asko liteke,  
gorrotoarekin batez.  
Etsai faltsoak jabetu dira  
daukagun zentzu arloitez,  
Belen'en jaio zizñan Aurtxoa,  
gutaz errukitu zaitez!

9/ Gure errua baldin badegu  
aitortu: Ni pekatari;  
jaso biotza, egin irripar,  
ez malkorikan ixuri.  
Zoriona ta alaitasuna  
zabaltzen ditut kantari,  
eta azkenik besarkada bat  
Euskalerra guztiari.

*La Voz de España, 1976-XII-26.*

## GABON-EGUBERRIAK

Berriro ere emen ditugu jai zoragarri auek gurekin. Bañan urteroko leloa: ezbearrak, eriotzak, lanik ezak, naigabea bazter guztietan. Alaitasunik eta pozik ez, Gabon-jaiak ospatzeko.

Ori dala-ta orain sei urte jarritako bertsoak datoz ondoren:

- 1/ Bertso batzuek nai dituanak entzun edo irakurri, une ontako nere asmoak ez dira gaizki etorri; berriro emen dira Gabonak, gaiñean da Eguberri, nere agurrik maitekorrenak ainbat euskaldun jatorri.

- 2/ Urteak azken egunak ditu,  
agur egin dezaiogun,  
bakoitzak berak jakingo degu  
zer moduz igaro degun.  
Bizi-eziñak, buru-austek,  
ezbearrak gau ta egun,  
atseden eta pozikan gabe  
orrenbeste biotz bigun.
- 3/ Zenbat alargun, zenbat umetxo,  
malko gorriak boteak,  
zenbat guraso, zenbat senide,  
naigabe aundiz beteak;  
miñ ematen du bere maitea  
betiko eramateak,  
atsekabeen zuen lagun naiz,  
anai-arreba maiteak.
- 4/ Millaka lagun lanikan gabe  
itxaso ta legorrean,  
gero ta zama astunagoak  
beartsuen bizkarrean;  
palako eta musu eskeiñi,  
gero danba muturrean,  
ez ote gera bodegan sartu  
gora igo bearrean.

5/ Askotan pozez egonak gera  
Gabonak inguratzean,  
aurten malkoak irtengo dira  
askoren matrail-ertzean;  
ikusi eta entzuten danaz  
pixka bat oroitutzean,  
maitasun-itzak mingaiñean da  
gorrotoa biotzean.

6/ Utzi ditzagun kontu illunak,  
naiz izan egi sakonak,  
naigabe asko berekin dauka  
trantze oietan dagonak.  
Poztu, aurtxo, poztu, sasoiko,  
poztu, aiton da amonak,  
merezi duten gozotasuna  
izan dezaten Gabonak.

7/ Ez da ekaitzik denbora ona  
ondoren ez duanikan,  
eta guk ere ez dezagula  
galdu itxaropenikan;  
arnas berri bat datorkigula  
Jesus Aurtxoagandikan,  
guztiori auxe opa dizutet  
biotz barren-barrendikan.

*La Voz de España, 1977-XII-24.*

## MITXELENA'RI OMENALDIA

Donosti'ko Turismo-etxeak badu oitura txalogarri bat, urtero bertsolari bat omentzeko. 1978'an, Mitxelena'ri tokatu zitzaionean, urte geienetan bezela an nintzan ni ere, ta bai egun bikaña pasa ere. Bertsotik eta jan-edanetik bapo aseta etorri nintzan etxera. Egun batzuek lenagotik, zorionduaz, onoko bertso auek eskeñi nizkion:

1/ Gaur bai lanean asi naizela  
gogoz eta maitasunez,  
zerbait oroitu bearra zegon  
Mitxelena'ren omenez.  
Biok Oiartzun berean eta  
urrean bizi geranez,  
bertso batzuek eskeintzen dizkat  
milla zorion emanaz.

- 2/ A zer oitura txalogarria  
daukagun gure lurrean:  
bertsolari bat omendutzea  
urtero danen aurrean;  
euskal sendi bat alkaturikan  
anaitasun ederrean,  
egun alai bat pasatzen degu  
gure Donosti zarrean.
- 3/ O, Mitxelena, iritxi zaizu  
egun gogoangarria,  
or ikusten da bertsolariak  
izan oi duan neurria.  
Zurekin gera bertsozaleok,  
zurekin Euskalerra,  
txalotu nairik agortzen ez dan  
zure bertso-iturria.
- 4/ Erririk-erri bertso-jario  
asi ziñan zu gazterik,  
zenbat lekutan jarduna zeran  
ez dago adierazterik.  
Euskalerra etzeukan zor au  
ordaindu gabe uzterik,  
gaur ez daukagu zugaran bilduta  
eskerrak eman besterik.

5/ Izar argi bat azaltzea zan  
munduko zure jaiotza,  
Euskalerrian ezaguna da  
Mitxelena'ren abotsa.  
Bertsotarako sentitzen dezu  
oso doai aberatsa,  
gizon bezela begiratuta  
aingeru baten biotza.

6/ Urte askotan jardun dezute  
laiño beltzez tapatuta,  
gogorik gabe, gezur kontari,  
egiak debekatuta;  
txibato edo izpiak nunai  
magnetofonak artuta,  
zintzilik egon bear luteke  
lepotik ondo lotuta.

7/ Entzulearen zenbat egarri  
ote dituzu aseak?  
Bertso sakonak, jostalariak,  
laburrak eta luzeak,  
iturri ortan aurkitzen dira  
nai diran neurri klaseak,  
zuri entzuten une goxoak  
sarritan ditut paseak.

8/ Maitasun auxe eskeiñi nai-ta  
nola azaldu ez nekiñ,  
gogozko lana nola baitedan  
bertso jartzeari ekiñ.  
Jaunak nai badu, jaialdi ortan  
or izango naiz zurekiñ,  
bein da berriro milla zorion,  
agur, lagun Joxe Joakiñ.

*La Voz de España, 1978.I.20.*



## NERE ILLOBA BATEN EZKONTZA

Orain dala bost urte, San Juan egunez,  
nere illoba baten ezkontza zala-ta, Guadalupe'ko eleizan ondoko iru bertso auek kantatu nituan:

- 1/ Biotza daukat pozez beterik,  
itz goxoak ezpaiñetan,  
bi izar eder daude aurrean  
ain ordu atsegiñetan.  
Alkarganako maitetasuna  
aitortu dute ziñetan,  
ain maite degun Guadalupe'ko  
gure Amaren oiñetan.

2/ Gazte maiteok, lotu zerate  
maitasunaren katean,  
bizi berri oi izan dedilla  
Jaunaren borondatean.  
Eskari auxe egiten det nik  
aldare santu batean:  
uztarri oi ez dedilla autsi  
bizi zeraten artean.

3/ Jaso nigandik milla zorion  
jaso zuzen-zuzenean,  
barka zazute uts egin badet  
nere eginkizunean.  
Ama laztana, eskatzen dizut  
gazte oien izenean:  
urte askoan gorde itzazu  
gutzizko maitasunean.

## ANDIK URTE BETERA

Len goraxeago nion nere illoba oien ezkontzak eman zuan bere frutua, eta ezkontzatic urte betera, berriro San Juan egunez ospatu genduan bataioa.

Orduan, nere anaia aitondu zala-ta, aurtxo orri lo arrerazteko kanta dezaion, ondoko iru bertso auek bialdu nizkion:

- 1/ Etzazula, arren, negarrik egin  
emen naiz aldamenean,  
zure negarrak min ematen du  
nere biotz barrenean.  
Seaskatxoan jarriko zaitut  
patxarik ederrenean,  
berriro biok jostatutzeko  
esnatzen zeradenean.

- 2/ Nekatu zera ta logaleak  
begirik ezin ireki,  
bañan alare lo egiteko  
zuk ez gogorik izaki.  
Esnatutzean artuko zaitut,  
ez bildurrikan eduki,  
atseden pixkat komeni zaizu,  
lo egin zazu, Iñaki.
- 3/ Nere begien izar argia,  
ur bedeinkatuz bustia,  
nere biotza berotzen dezun  
benetako eguzkia,  
lore mardulen zumo goxotik  
sortu zinduzten eztia,  
bertso auekin eskeintzen dizut  
nere maitasun guztia.

## OPORRALDIA

Gaur geienak, edo al dutenak beintzat, urteko beren oporraldiak, Euskalerritik kanpora pasatzeko zaletasuna daukate. Urte guztian emen aurreratutako pezetak kanpo-errietara eramane eta an utzi. Nik nere oporrik geienak mendi gañeko eta itxas-ertzean arroka gañeko eguzki eta aize garbia artuaz pasatzen ditut; bañan Euskalerrian. Orain dala urte batzuek, nere oporraldi edo jaietako joerak eta orduko emengo giroa gai artuta jarritako bertsoak datoz:

- 1/ Bertsozaleok, atera noa  
zuentzat zerbait esaten,  
lantokitikan urteko jaiak  
nola eman dizkiguten.  
Orain bezela jarraitzen badu  
egualdi onak egiten,  
mendi gaiñetik mendi gaiñera  
pasa nai nituzke aurtan.

2/ Ibai guztitan ustel-usaia,  
keatz beltza tximinitan,  
osasunaren ondoez asko  
ortatik datoz erditan;  
gaur mendi baten gainean gaude  
eguzkiaren argitan,  
ea pixka bat garbitzen geran  
emengo aize garbitan.

3/ Une auetan Eskas'en gaude,  
Artikutza'tik urrean,  
etxe txiki bat taberna gisa,  
kamioa bazterrean;  
ezertarako kezkarik gabe  
ain patxara ederrean,  
bertso auetxek idatzi asmoz  
exeria naiz lurrean.

4/ Urri da, baiña biltzen ditugu  
xixa ta gibelurdiñak,  
zugaitz ostoan babes gozoan  
lur mardulean egiñak;  
andreak berriz kamamilloak  
kentzeko tripako miñak,  
ai, auek leku zoragarriak,  
auek ordu atsegiñak!

- 5/ Emen ez dago kezko poterik  
eta gomazko pelotik,  
emen ez dago bala ta bonba,  
pistol eta metrailletik.  
Gerra bizian ibilli gera  
amabost egun aurretik,  
aiek pixka bat aztutzearren  
aldegin degu erritik.
- 6/ Errenderi ta gure etxeak  
tarte txikia daukate,  
erri artako gertakizunak  
danok entzun dituzute.  
Mendian iñoiz usoen gisa  
pasa degu astebete,  
oraingo ontan ezurretara  
beldurra sartu digute.
- 7/ Kamio danak ondo itxiak  
arbolez edo egurrez,  
erriko kale danak beteak  
eiztari edo zakurrez;  
zenbait aiton da amona gaixo  
naigabeturik negarrez,  
beren etxeko leioetatik  
begiratzeko beldurrez.

8/ Auxe pentsatzen egoten nintzan  
askotan nere artean:  
ainbeste arma ta ainbeste tiro  
zertako erri batean?  
Artzaiak eta ardiak nola  
biziko dira pakean,  
otsoak sartzen baldin badira  
artaldearen tartean?

9/ O, Euskalerra biotzekoa,  
ez dezu egun bat onik,  
nola ez degu negar egingo  
zu ain maitea izanik?  
Bukatutzeko, anai maiteak,  
au eskatzen dizutet nik:  
txarrak ondoren ona dakarki,  
ez galdu itxaropenik.

*La Voz de España, 1978.VIII.5.*



## ARRIJASOTZALLEAK TOLOSA'N

Orain dala urte batzuek, Arrua'ko Ostolaza eta Asteasu'ko Iraola'ren arteko joko bat jokatu zan arri jasotzen, Tolosa'ko zezenplazan. Apustu gogorra izango zala uste zuen jendeak, bañan etzan ala gertatu. Ostolaza'k errex menderatu zuen, beste asko egin dituen bezelaxe. Nik orduan onoko bertso auek moldatu nituen:

- 1/ Korpus egunez gure zai zegon  
Tolosa'ko zezen-plaza,  
ikuskizun bat zegoen bertan,  
gaiñera euskal jolasa.  
Bi gizon auek ikusi gabe  
nola egun ura pasa:  
Astiasu'ko Iraola ta  
Arrua'ko Ostolaza?

2/ Ar bat bazegon oien barruan  
bi edo iru urtean,  
etzeuden lasai bitan onena  
zein zan probatu artean;  
tratu gogorak artu ondoren  
iru bat illabetean,  
bat zeruetan gelditu zaigu,  
bestea laiño tartean.

3/ Ostolaza'ren jarraitzalle bat  
nola ez leike arritu?  
Gizon txikiak ainbeste kemen  
nundik ateratzen ditu?  
Orra berriro galtzea zer dan  
ez dakiala gelditu,  
guk ez diogu iñoiz ematen  
merezi ainbat meritu.

4/ Iraupen edo zailtasunean  
berdin gabea zera zu,  
zure pixuko gizon batentzat  
indarra sobra daukazu;  
buru argia, plaza-gizona,  
danak zeurekin dituzu,  
bada oraindik zerbait geiago:  
Luis Atxega zure maixu.

5/ Jokoa egiten bai al da iñor  
onek aiña dakianik?  
Ez det esan nai jokaturtean  
ez dula egiten lanik.  
Saiaturteko etzaio palta  
orri borondate onik,  
danean dala arrigarria  
garbi aitortutzen det nik.

6/ Aztutzen zail dan markak or daude  
zuk egindako lanetan,  
apustu eta txapelketara  
iñoiz irten zeranetan.  
Danak mendean artu dituzu  
jokaturtako danetan,  
txikia deitzen dizugu baiña  
aundia zera benetan!

7/ Zoriontzen det Ostolaza ta  
zoriontzen det Arrua,  
gaur atera du aspalditxoan  
barruan zeukan ar ua.  
Txikia, piña, apala izan,  
ez aundia ta arrua,  
jostailu gisa dantzatzan ditu  
orrek amabi arrua.

8/ Apustu danen berri ematen  
Erri Irrati Loiola,  
Euskalerrian ainbat mesede  
egiten duan kaiola.  
Bitatik batek galtzaille bear,  
beti gerta oi da ola,  
beste egun bat iritxiko da,  
zorionak, Iraola!

*El Diario Vasco, 1979. VI.24.*

## ERNIO MEDIKO ALBISTEAK

Orain dala ogei ta lau urte igo nintzan lenengo aldiz Ernio mendi gañera.

Geroztik, ogei ta bat aldiz iritxi naiz, eta aurten ere, Jainkoak lagun, joan nai genduke.

Iraillaren lenengo igandean degu oitura joateko, egualdi txarren bat izan ezean beintzan.

Garai bateko oitura on asko galdu egin dira an ere.

Len, Gurutz-bide edo Kalbarioak esanez, danok otoitzean igotzen giñan mendi-gain zoragarri artara, eta pixkan-pixkan galdu egin da oitura ori.

Ori dala-ta, orain bi urte, andik beera abiatzerakoan, otoitzen ordez ondoko iru bertso auek eskeñi nizkion:

1/ Zori txarrean ez daude orain  
garai bateko kontuak,  
ixildu ziran orazioak  
ta kalbario santuak.  
Zuentzat ditut sortzen zaizkidan  
itz goxo eta kantuak,  
gizaldietan emen zaudeten  
gurutze bedeinkatuak.

2/ Gaur ogeigarren aldiz bildu naiz  
Ernio'ko gurutzean,  
au nere poza ta atsegiña  
zugana inguratzean!  
Ikusten dezu zer maitasuna  
dagon nere biotzean,  
begiak malkoz bustitzen zaizkit  
zugandik abiatzean.

3/ Berriz e laister gera zurekin,  
azkar joan oi da urtea,  
ta ortarako naikoa degu  
zuk ala nai izatea.  
Zure laguntza izan ezkeru  
badegu borondatea,  
agur, gurutze bedeinkatua,  
agur, Ernio maitea!

## ARTALDEA GUTXITZEN

Urte batzutan koadrilla aundia joaten giñan Ernio'ra. Baiñan pixkan-pixkan bakan-tzen joan gera eta azken urte auetan nere lagun Rafael bere emaztearekin eta ni nerearekin laurok gabiltza.

Nere lagun Rafael au ibilkari aundia da, errex ibiltzen dana, nik baño urte batzuk geiago izan arren. Anima apartatuta, mendi-beor oietakoa. Izerdi aundirik atera gabe egiten du orrek Ernio'ko joan-etorria.

Zizurkil'en dauka bere lan-tokia eta ondo daki alde artako txokoen berri.

Azken urte auetan Billabona edo Zizurkil aldera jeixten gera bazkaltzera eta, len esan bezela, orko txokorik onenak nun dauden ondo daki Rafaelek.

Aurten bi urte, bere urtebetetze-egunez tokatu giñan, irailaren 6'ean ain zuzen, eta bazkalondoan ondoko iru bertso auek eskeñi nizkion:

- 1/ Ez dek erreza au baño leku  
politago billatzea,  
ikusten diat zer balio dun  
txokoak ezagutzea.  
Ez ote zaiguk laguntzen ari  
Ernio'ko gurutzea?  
Bapo ospatzen ari gaituk gaur  
ire urte betetzea.
- 2/ Ire oin oiek nekezko pausoik  
ez ditek iñoiz lurrean,  
mendi aldean ez dek erreza  
ibiltzen ire aurrean.  
Gaztetzen eta sasoitzen ai aiz  
zartzen ari bearrean,  
urtien kargik ez dek nabaitzen,  
motell, ire bizkarrean.
- 3/ Lagun maiteak gaituk gu biok  
ta gañera aspalditik,  
amaika ordu paseak biok  
ezagutu giñanetik.  
Gerra aundirik ez dek zabaldu  
i eta nere artetik,  
bein da berriro milla zorion,  
Rafael, nere partetik.



## ERRIKO PESTAK

Bai; San Esteban jaiak ditugula ta erriari edo erritarreri eskeintza txiki bat edo agur bat egin asmotan asi naiz.

Erriko pestak, gutxi edo geiago, geienak alaitzen gaitu. Baiña danak ez, zori txarrez; esate baterako, gaixo-etxetan edo beren etxetan gaixorik daudenak, espetxetan eta soldadu daudenak, atzerrietan bizi diranak, eta abar eta abar. Oientzat ez dago alaitasun eta pesta-giro onik.

Beste guztien artean oiek danak agurtu nai nituzke; gañera bertsoan egin nai nuke ere agur au.

Esan bear dizuet denbora luzean bertso jartzeari utzita egondu naizela; eta, jakiña oso atzendurik nagola. Bolara batean bertso-mordoa jarri banuan ere, gero utzi egin nion, zabartu egin nintzan. Uzten errezago da, berriro asten baño.

Danon gustorik ez det egingo. Jakiña, barentzat ondo datorrena, besteentzat gaizki baidator. Bañan besterik gabe bertso tara nijo:

- 1/ San Estebanak emen ditugu  
erriko pestak gañean,  
alaitasuna maite degunok  
asi gaitezen lanean.  
Errian zerbait agertu dedin  
Manterola'n izenean,  
bertso auetxek eskeintzen ditut  
borondateik onenean.
  
- 2/ Zabarkeri bat egin zitzaidan  
doai edor onen jabe,  
orain ez dakit jarraitu edo  
ixiltzea nuken obe.  
Jakiña dago gaur ez nagola  
len negoen bezin trebe,  
lau urte t'erdi pasa baidituz  
bertsorik moldatu gabe.
  
- 3/ Poztutzen naute aiton-amonak  
eta aurtxoak ez gutxi,  
ongi etorri senar-emazte,  
ainbat mutil ta neskatxi.  
Urte luzea pasa ondoren  
orra berriro iritxi,  
ta Oiartzun'ek San Estebani  
ezin aterikan itxi.

- 4/ Erria txukun, kalea apaiñ,  
orra jaien etorrera,  
naiz-ta sarritan geure artean  
egon milla gora-bera.  
Ikusirikan kristau askoren  
bizitzako egoera,  
biotz bigunak ditugun danok  
asko naigabetzen gera.
- 5/ Aztu antzean baztarturikan  
dauzkagun aiton-amonak,  
zenbat umetxo, zenbat sasoiko  
gaitzaren mende daudenak.  
Al dan moduan izan ditzagun  
oiekin artu-emanak,  
danon pozgarri izan ditezen  
aurtengo San Estebanak.
- 6/ Atzerritatik etxeratzerik  
askok ez dute izaten,  
aiek ez dute gure lurreko  
soñu goxorik entzuten.  
Beren erria malkoz bustirik  
egun batez utzi zuten,  
al zan lekura jo egin bear  
bizia maite bazuten.

7/ Kartzela edo espetxeetan  
dauden anai-arrebari,  
bertso pare bat idazten dizkat,  
ez det jardun nai kantari.  
Ez bainioke kalte egin nai  
len ain goibel dagonari,  
eta or ez da eguzkirikan,  
ekaitz gaiztoa ugari.

8/ Biotzez beti zuekin gaude,  
garbi nai degu azaldu,  
ta erriaren samintasuna  
bertso auetan bialdu.  
Giltzez itxirik dauden atepak  
ezin ditugu zabaldu,  
beste egun bat iritxiko da,  
ez itxaropenik galdu.

9/ Urrutietan soldadu dauden  
erriko mutil gazteak,  
bakarren batzuk etorko dira,  
an egon bear besteak.  
Poztutzen gaitu geure semeak  
etxeratzen ikusteak,  
eta barrengo maitasun ori  
alkarri erakusteak.

10/ Sasoi orretan besteren mende  
ez noski norberak naita,  
utsegiteko beldurra daukat  
egik esaten arita.

Ala bearrez ni neroni naiz  
oietako baten aita,  
geure seme bat ere Lerida'n  
soldadu dagona baita.

11/ Era ontako gauzak kontatzen  
gabiltzan leku danetan,  
beti orrela bear al degu  
gure lur maite onetan?

Burruka dago emen indartsu  
ta pakea azkenetan,  
ondo pentsatzen jarri ezkerro  
negargarria benetan.

12/ Kontu illunak izan badira  
erriko pestetarako,  
alaiagoak asmatu bear  
beste egun baterako.

Bertsozaleak badaude emen  
klase guztietarako,  
onek gogoia ematen digu  
guri bertsoetarako.

13/ Jaso dezagun bertsolaritza  
batzuk ez bada bestiak,  
zarrak ixiltzen diranerako  
sor ditezela gazteak.  
Asko poztu nau neure burua  
berriro ontan asteak,  
ikusten danez on egin digu  
aurtengo «bertso-asteak».

14/ Anai-arrebak, besterik gabe  
banoa bukatutzera, ,  
egun auetan naigabe danak  
utzi ditzagun atzera.  
Bildu guztiok alkarrengana  
maitasuna eskeintzera,  
beti banaka ibilli gabe  
ardi galduen antzera.

*Oiartzun 1982 urtekaritik*

## ARREBA GAZTEENAREN URTEBETETZEA

Nere arreba gazteena bere urtebetze egu-  
nean ezkondu zan. Geroztik, urtero ospatzen  
dute ezkontzako eta jaiotzako urtebetetzea.  
Ospatzen dute edo ospatzen degu, obeto esan-  
da, gu ere an izaten baigera beren ondoan.

Urte batean, bazkal ondoan, bertso auek  
kantatu nituen, eta nere koñadu Mikelek zin-  
ta batean grabatu eta gordeak zeuzkan:

- 1/ Bertso kantari nator  
gaur alaitasunez,  
eskeintza bat egin nai  
nuke maitasunez.  
Urteroko deiari  
gogoz erantzunez,  
gaur ere emen gatoz  
borondate onez,  
biotz-biotzetikan  
eskerrak emanaz.

2/ «Urte askoz» arrebai  
aboa betean,  
bai koñaduaz ere  
oroitu gaitean.  
Arantxa ta Begoña  
gurason artean,  
berdin entzule danok  
jarririk tartean,  
jaso milla zorion  
guztiok batean.

3/ Egun zoragarri au  
iristen danean,  
zer poza ta atsegiña  
neure barrenean.  
Maitasunez beterik  
ta osasun onean,  
eskerrak eman bear  
dizkat zuzenean  
gure Jaungoikoari  
danon izenean.

4/ Naigabeak kontatzen  
zertan egin neke?  
Zoritxarrez lan ortan  
aukera legoke.  
Eztaukagu nai ainbat  
zorion ta pake,  
gaitz au umore onez  
senda baliteke,  
gau guztia kantari  
pasatuko nuke.



5/ Billera auek pozgarri  
zaizkigula izaten,  
gure ondorengoak  
ikasi dezaten.  
Seme-alabengatik  
ari naiz esaten,  
ai zer bide polita  
jarria daukaten,  
ez dakit galdu gabe  
jarraituko duten.

6/ Auetxek izan dira  
neure iritziak,  
sendi maite onentzat  
gaur nik bereziak.  
Berriro zorionak,  
berriro graziak,  
guztiok dituzute  
ondo mereziak,  
gora Moko zorrotz ta  
bertako guziak!

## NERE BEGIEN GOZAMENA

Nere bizitzan denbora asko galdu gabea naiz ondartzetan eguzkia artzen. Bañan itxas ertzeko arkaitz gañetan edo arroka artean ordu asko ditut paseak. Ez dira jostatzen ibiltzeko toki ederrak, erne ibilli bearreko lekuak baizik. Bañan ala ere neretzako oso leku atsegiñak dira. Lengo udaran, Pasai Donibane'n, arkaitz edo arroka gain batetik itxasora begira nengoela, ondoren datozen bertso auek bururatu zitzaizkidan:

- 1/ Itxas ertzero nator kantari  
burua bertsoz beterik,  
ez baidet uste nere jardunak  
zuri kalte egiterik.  
Zuretzat ez da agintaririk,  
zuretzat ez da aterik,  
zuri ez dago amorrazi ta  
«naikoa da» esaterik,  
zure ondoan ez dago iñoiz  
erdi lotan egoterik.

2/ Arroka edo arkaitz gañetik  
itxasoari begira,  
une batzutan nere begiak  
asko gozatutzen dira.  
Olatuaren apar zuria  
or dabil jira ta bira,  
karramarroak azkar dijoaz  
arri gañetik azpira,  
ez ni bezela bi ankekoak  
mundura sortu balira.

3/ Arri beltz auek garbitzen dira  
itxasoko ur urdiñez,  
gaur arro samar ikusten zaitut  
kolpe zakarrak egiñez,  
neri bizkarra busti naiean  
olatuen zipristiñez.  
Legortuko naiz eguzki goxo  
eta aize atsegiñez,  
ementxe nago ikusten diran  
gauzak sinistu eziñez.

4/ Neurri gabeko itxaso aundi  
zabal orren barrenean,  
millaka kristau gau eta egun  
or ari dira lanean,  
arrixku eta neke gogorrek  
beti edo geienean.  
Guk emen iñoiz arrai goxoa  
eskuratzen degunean,  
arrantzaleaz oroi gaitezen  
Jainkoaren izenean.

5/ Kale, baserri edo itxaso  
nonbait bear da saiatu,  
norbaitek joan bear du eta  
zuk orixe aukeratu,  
kupira gabe iana eginda  
ezer gutxi aurreratu.  
Ni ere itxas-errikoa naiz,  
ezin nezake ukatu,  
bañan al bada naiago det nik  
bazterretik begiratu.

6/ Arrantzaleen bizimodua  
zerbait aztertu dezagun:  
beren sendirik ikusi gabe  
ainbeste gau eta egun.  
Zenbat emaztek esan ote du:  
«Betiko joan zitzagun!»  
Begira gure itxas-erritan  
zenbat famili dauzkagun:  
seme-alabak aitarik gabe,  
ama gaixoa alargun.

## NERE URTEBETETZEA

Aurtengo Otsaillaren 18'an, nere urtebete-tze eguna zala-ta, nere senide guztiai zerbait oroigarri egitea bururatu zitzaidan.

Bakoitzak eraman duan eta daraman bizi-moduaz zerbait itzegin eta ondoren iru bertso kantatu bakoitzari, eta era ortan bete nuan ordubete ta erdiko zinta bat.

Orain, bakoitzari kantatutako iru bertsoak liburu ontara pasa ditut, kontatutako dana pasatzea luze eta aspergarri izango bailitzake.

Lenengo bi bertsoak, ildako guraso eta senideak gogoratuaz jarriak dira:

Gure guraso eta anaiak  
otoitz-premian baleude,  
laguntza on bat egin liteke  
eta gañera debalde.  
Au irakurtzen dezuten danai  
nik egiten diet galde,  
aitagure bat errezatzeko  
aien animaren alde.

Landare asko sortu ginduzen  
aita ta aman baratzak,  
izan ditugu egun illunak,  
urte gogor eta latzak.  
Larros eder ta mardulenak e  
berekin dauzka arantzak,  
diruz pobreak bagera ere  
maitasunez aberatsak.

\* \* \*

Orain bai, nere senideak datoz, eta izan dituzten oker edo naigaberik aundienak esango ditut itz gutxitan.

Lendabiziko, arreba Pilar. Orain dala urte batzuek tensio-atake batek eman ta ari bate-tik ateria bizirik.

Arreba maite biotzekoa,  
zugana nator kantari,  
gorputz batean sortuak gera,  
zuk ondo dakizu ori.  
Oso gazterik ekin bearra  
izan zenduen lanari,  
ondasun asko ez dezu izan,  
naigabea bai ugari.

Sasoi zendula gure Jainkoak  
neke asko eman zizun,  
ondorenean etzendun izan  
komeni ainbat osasun.  
Bañan gaur, Pilar, ikusirikan  
zer bizimodu damazun,  
etzenidake sinistatuko  
zer poz ematen dirazun.

Biotz aundiko ama jator bat  
beti izandu zera zu,  
zeure frutuen maitasun ona  
ondo merezia dezu.  
Gaur Oiartzun'dik zure anaiak  
auek eskeintzen dizkizu:  
besarkadarik anaikorrena  
eta gañera bi musu.

\* \* \*

Bigarren arreba, Juanita. Ezkondu eta bederatzi illabeterako gizona espetxera eraman; eta andik bederatzi illabetera, au da, ezkondu eta urtebete ta erdirako, artu zeukaten lekutik eta afusillatu, orduan Euskal-Erriari beste aine beste bezelaxe. Andik urte batzuetara berriro ezkondu zan, eta oraingo gizona ere aize txar edo gaitz batek arrapatu eta elbarri gelditua da.

Zerbait kantatu nai nizuke ta  
ez dakit nondikan asi,  
utsegiteak barkatutzeko  
eskatzen dizut lenbizi.  
Zure biotzak zer supritu dun  
ta begiak zer ikusi,  
nik asitako lan txiki ontan  
ez leike adierazi.

Zuretzat ez da udaberririk,  
beti negu beltz zakarra,  
ez dakit nondik sortutzen dezun  
menderatzeko indarra.  
Alare iñoiz gertatutzean  
zure laguntzen bearra,  
beti aurpegi alaia eta  
ezpañetan irriparra.

Biotz biguna, esku zabalak,  
ezti antzeko mingaña,  
pazientzia berriz badezu  
erri batentzako aña.  
Mundu triste au, bai, zuretzako  
gogorra izan da, baña  
Zeruko Aitak emango dizu  
neke guztien ordaña.



Irugarrena, Pakita. Orri, berriz, egun batean, bere semea bizikletan eskolara zijoala, kamioi batek jo edo azpian arrapatu eta il, amabost urte zituela. Mutil aundia eta bikaña gañera.

Bizimoduak gorabera asko  
izaten ditu munduan,  
gaur argitasun osoan eta  
biar ia illunduan.

Une goxo ta atsegiñenak  
naigabea du onduan,  
eta zuk ere urte batzutan  
asko supritu zenduan.

Oso gazterik eman zenion  
bizimoduai arpegi,  
ainbat denbora besteren mende  
zuk jator ta zintzo segi.  
Gero ez dakit zenbat urtean  
Lazkao'k ein zizun argi,  
azken aldera an etzenduan  
izan suerte geiegi.

Ainbat urteko nekeak eta  
ondorengo ezbearrak,  
biotz oneko ama batentzat  
ez dira gauza ederrak.  
Aldegin zuten naigabe oiek,  
zuzendu ziran okerrak,  
gaur zoriontsu bizi zerade  
Jaungoikoari eskerrak.

\* \* \*

Laugarrena, nere anaia Pedro. Ori ere  
orain Errenteri alde ortan bapo bizi bada ere,  
baserrian igaro zituan azken urteetan bereak  
eta bi ikusia da. Otz eta beroak pasatzea ta  
lana egitea zer dan ikasitako gizona.

Neguko izotz orma ta elur  
ta udarako eguzkia,  
burutik bera artu bearra  
goitik datorren guztia.  
Kazkabar, euri edo izardi  
beti bizkarra bustia,  
ondo pensatzen jarri ezkerro  
zer bizimodu tristia!

Amabi ordun basarrin lana  
ta beste zortzi fabrikan,  
lo egiteko ez un izaten  
beste lau oik besterikan.  
Ez uen asko nabarmendutzen  
aste-egun ta jairikan,  
ordun ez uen plakatutzeko  
*futin* egin bearrikan.

Negun eizeko denbora artzen  
iretzat ez uen errez,  
alare ollagor asko illa aiz,  
gutxik egiten zin iges.  
Gauza guztien antzera oi're  
aldatu dek zori txarrez:  
orain eizeko naiko denbora  
bañan ollagorrikan ez.

\* \* \*

Bostgarrena nerone naiz. Nere gertakizunak lenago kontatuak daude, Bakarrik, orduan soldadu zegoen semea gaur etxean dala; morrontza bukatu zuala.

Lendikan denok dakizutena  
noa kontatzen astea:  
bi seme ditut, bat soldaduzkan  
eta etxean bestea.  
Ta irugarrenak ez du merezi  
aipatu gabe uztea:  
urreak baño geio balio  
duen nere emaztea.

Bizi berri au etzait gustatzen,  
naio det lengo zarrean,  
urtean eun bat ez dut pasatzen  
telebistaren aurrean.  
Lagunarteak ditut gogozko  
alaitasun ederrean,  
ta alaitasun gutxi dago gaur  
gu bizi geran lurrean.

Lagun jatorrak baditut beti,  
askotxok maitatzen naute,  
ta osasunez, Jaunari esker,  
izan det naiko suerte.  
Era ontantxe igaro ditut  
berrogei ta amabi urte,  
ta era ontan jarraitu nai det  
Jainkoak nai duan arte.

Orain seigarrena eta azkenekoa: nere arreba Gabriela. Irun'go Landetxe ballarako Moko-zorrotz baserrian bizi dana. Beraz, baserriko etxekoandrea danez, aitzurra eskutan nola artzen dan dakiena, eta sukaldean sua nola pizten ~~dan~~ ere bai.

Kaixo, arreba, emen natorren  
umore onez kantari,  
azken goxo bat eman naiean  
gaur artutako lanari.  
Idukiko den entzun-naia ta  
zer kontatua ugari,  
ori sarritan gertatzen zaion  
baserrian dagonari.

Iretzat ditun nere itz goxo  
ta gaurko azken kantuak,  
bizimoduko gora-beratan  
ez dauzkan lengo kontuak.  
Neke gogor ta une garratzak  
baditun menderatuak,  
bejoandiñela, arreba maite,  
ik ditun puldamentuak.

Ez bedi galdu baserria ta  
ez dedilla galdu lurrik,  
oietan zerbait saiatzen danak  
etzeukan gose-bildurrik.  
Baserritarrak ez dituzute  
alderdi txarrak bakarrik,  
beltzatutzeko ez daukan beintzat  
ondartzâ joan bearrik.

## UZTAPIDE IL DA!

Berri tristea edo gai illuna egokitu zait, nere liburuan azken bertsoak jartzeko.

Ekainak 8. Zerbait gogozko entzun naiean, radioa piztu. Zer entzungo? Ta: «Manuel Olaizola «Uztapide» il da!» Orra zer berri jaso nuan.

Zer esan nezake nik Uztapidetzaz? Nere us-tez, esateko danak esanak daude. Berarekin gaztetan asi eta orain arte jarraitu dutenak, garbi kontatu dute Uztapide nor izan dan.

Nik egin nezakeana, borondaterik onenez, onoko bertso ale auek eskeñi, nere bertsoak Uztapiderentzat ezerezak izango badira ere.

- 1/ Biotza daukat naigabetua,  
oroimenez nago motel,  
bertsolaria maite degunok  
gaude triste eta goibel.  
Zugaitz aundi bat ezkutatu da  
tronko, adar eta orbel:  
Uztapide'ko seme argia,  
Olaizola'tar Manuel.

- 2/ Ekainaren zortzigarrena  
nai arren ezin zait aztu,  
gertatutako berri illunak  
ez nindun askorik poztu.  
Egia zala esanagatik  
nik ezin nuan sinistu,  
naiago nuan ezpaldin banu  
gure radioa piztu.
- 3/ Gaur triste daude Euskalerriko  
bertsozaleen biotzak,  
min eman zigun uste gabeko  
albiste illun zorrotzak.  
Bezperatikan asiak ziran  
tximist eta trumoi-otsak,  
denboraleai ere min eman  
zion aren eriotzak.
- 4/ Amaika urte paseak dira  
asi zitzaizkala miñak,  
jende aurrean ezin kantatu  
egin arren alegiñak.  
Etzun alperrik denborik galdu,  
lan asko dauzka egiñak,  
esku ta lumaz ornitu zitun  
mingaiñez kanta eziñak.



5/ Oso gazterik ikasi zuan  
beartsu gisan bizitzen  
zenbat lan-mota proatu zitun  
zail da adierazitzen.  
Ikatz egiten ere jardun zan  
Zestua'n da Izarraitz'en,  
bai Donostia'n fabrikan ere  
zerbeza enboteillatzen.

6/ Serbitu zitun nekazaritza,  
artzantza eta basoa,  
kantuz zabaldu zuan doaia,  
berdin euskera gozoa.  
Eta azkenik luma artuta  
dantzatu zuan besoa,  
baita dotore idatzi ere  
bere bizitza osoa.


7/ Gauza zan arte millaka bertso  
euskal plazetan boteak,  
argatik zeuzkan beti zabalik  
Euskalerriko ateak.  
Etzigun ainbat galera egin  
ondoezik egoteak,  
iru liburu eder or daude  
bere doaiez beteak.

8/ Egintza onak utzi dizkigu,  
oiek ez dira joango,  
lan eder oiek ez ote dute  
beren frutua emango?  
Bertsotan onak ez datozenik  
ez det iñolaz esango,  
baiña utsune ori betetzen  
ez da erreza izango.

9/ Bere illetak ospatu ziran  
eliza bete-betean,  
amazazpi apaiz meza eskeintzen  
aldare santu batean,  
bertsolariak malko jario  
agur itzak esatean,  
askok gogoan izango degu  
bizirik degun artean.

10/ Azken agurra egin genion  
bizi geran lur gaiñean,  
geroztik amets asko egin det  
sinistatu eziñean.  
Orain atsedean artu dezala  
zeru zabal urdiñean,  
ta sendiari laguntzen diot  
atsekabe samiñean.

*El Diario Vasco*, 1983-VI-28 eta 29



AUSPOA  
LIBURUTEGIA